419 zenbakia. 2000ko uztailaren 21a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara



## Lurgabeak

Sebastiao Salgadoren argazkiak Kultura Etxean

OPEL

TALLERES OLA
Olabarren auzoa z/g.
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).
Tf: 943 79 05 86
OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



**NISSAN ALMERA** BERRI, BERRI, BERRI, BERRI, BERRIA.
ORAIN, 5 URTEKO GARANTIAREKIN, BETI BERRI-BERRI.

**NISSAN *Almera*** BERRIA. BIDEAN GOZATZEKO.

Mendeetan zehar, filosofo eta alkimistek gaztetasun betierekoaren elixirraren bila jardun dute etengabe. Nissanek Nissan Almera berriarekin aurkitu du. Daukan segurtasun aktibo eta pasiborako paketeak bere kategoriako ibilgailurik seguruenetakoa bihurtzen dute. Baina, horretaz gainera, bere kategorian bost urteko garantia eskaintzen duen ibilgailu bakarra da. Inolako kilometraje muga barik, denbora horretan lehenengo egunean bezain berri egon dadin.

Nissan Almera berriak ez du urteen pisurik sentitzen.



5 URTEKO GARANTIA KM MUGARIK GABE

| 1.5 MOTORRA | 1.8 MOTORRA | 2.2 MOTORRA Di | 2.2 MOTORRA Di |
|---|---|---|---|
| COMFORT 3 ate | COMFORT 5 ate | COMFORT 3 ate | COMFORT 5 ate |
| 1.935.000PTA* | 2.360.000PTA* | 2.320.000PTA* | 2.365.000PTA* |

NISSAN

GIDATU ETA GOZATU



# Udalak eta politika ekonomikoa

**Fermin Lazkano** / Langilea

Orain hiru aste, Bergara ez den herri bateko alkatearekin bazkaldu nuen. Normala den moduan, hainbat gairi buruz hitz egin genuen, baina berehala nagusitu zen horietako bat.

Gaia, Udaletan sarri hartzen den erabaki baten inguruan korapilatuz joan zitzaigun. Izan ere, Udalek zerbitzuak garbiketa, mantenimendua eta abar azpikontratatzeko joerari buruz jardun genuen.

Bera horren aldekoa zen zeharo. Bere arrazoiak, nagusiki, hiru: Udalak funtzionario gutxiago edukitzea, lanaren eragin-kortasuna handitu egiten dela eta azkenik, errentagarriagoa dela herriarentzat.

Hirugarren arrazoiaren haritik idatzi nahi dut artikulu hau. Bi dira jarduera ekonomikoa arautzen duten ardatzak: merkatuaren legeak eta herritik goragoko instituzio politikoek ezartzen duten politika ekonomikoa.

Lehenari dagokionez, ez gara luzatuko, gutxi asko denek ezagutzen ditugulako, batzuek ederki aprobetxatzen dituztelako eta gehienek, ezinbestean jasan behar ditugulako. Bigarrenari dagokionez, besteak beste, hiru dira politika horien ardatzak: enplegua sustatzea, hazkuntza ekonomikoa eta prezioen oreka.

Garbi dago lehen bietan Udalek badutela zer esana. Eta helburu horiek betetzea dela Udalaren jardunaren errentabilitate neurria. Hasieran adierazi dudan adibidea har daiteke. Demagun garbiketa zerbitzua azpikontratatu nahi dela. Funtzionario gehiago nahi ez bada, zergatik ez enpresa misto bat egin kanpoko enpresa arrunt bat –Dragados, esate baterako– azpikontratatzea baino?

Eta alkate haren zalantza adierazpena: zer nolako enpresa mistoa ordea? Ba, nire ustez, kapitalean Udalaren zati bat daukana eta langileen artean kudeatuko litzatekeena. Gizarte ekonomia deritzana (kooperatibak, SAL-ak...) baina Udalaren kapitalaz ere bai.

*"Herri mailako politika ekonomiko bat behar dugula uste dut, hainbat gauza baitago ez merkatuak ezta urrutiko instituzioek herri bakoitzarengatik egingo ez dutena"*

Izan ere, Udalek azpiegiturak sustatzen jardun behar dute soilik? Zergatik enpresa kooperatiboak sortzeko inbertsioak ez dira haintzat hartzen?

Eta horrela hamaika ekinbide, hala nola, herriko kapital finkoa handitzeko politikak eta berorri errentabilitatea ateratzeko ekimenak, herriko enpresen merkaturatze prozesuetan lagungarri izan, gizarte ekonomian oinarritutako enpresak sortzeko inbertsioak, hezkuntza prozesua amaitu eta ondorengo urteetan gazteen ekimenei laguntza.... Laguntzak kapitaltzat ulertuta, hau da, etekinak atera behar zaizkion inbertsiotzat hartuta, etekin horiek berriro inbertitu ahal izateko.

Hau gauza bitxitzat joko du norbaitek. Baina aurrean dut Europa eta Ameriketako 94 herrik politika ekonomikoan hartu dituzten neurrien zerrenda xume bat. Benetan erakargarria.

Azkenean, herri mailako politika ekonomiko bat behar dugula uste dut, hainbat gauza baitago ez merkatuak ezta urrutiko instituzioek herri bakoitzarengatik egingo ez dutena <


**barruan**



**Eukene Gracia**
Preso ohia
***"Oso pozik nago familiarekin nagoelako eta aspalditik ikusi gabeko lagunekin"***
8.



**Paco Santiago**
Bergarako jokalaria
***"Realean eman ditudan urteetan batez ere zelaian sufritzen ikasi dut"***
22.



**Aritz Gallastegi**
Xipizaroko begiralea
***"Neguan eskiatzia gustatzen jat, frontoia be bai, eta, zela ez, neskiakin egotia "***
33.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

**gazte** informazioa

**IKASTAROAK**
**Nekazaritza.** Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna. Langabetuentzat. Irailetik aurrera Gasteiz, Tolosa eta Iruñean burututo den ikastaroa.
**Musika eramangarria.** Arteleku. Musika digitala era birtualean prozesatzeko behar diren tresnak ezagutzera emateko lantegia. Epea: uztailak 28.
**Informatika grafikoa.** Arteleku. Kontzeptu grafikoa garatzeko prozesua eta egiteko aukerak aztertuko dituen lantegia, tresna informatikoa erabiliz. Epea: uztailak 28.

**SARIAK**
**Etorkizuneko Musikarien Saria.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Musika arloko gazte birtuosoak ezagutaraztea eta beren ikasketak bultzatzea helburu duen saria. Epea: abuztuak 31.

**LAN ESKAINTZAK**
**11 albaitari plaza.** Nekazaritza, arrantza eta elikadura ministerioa. Albaitari tituloa. Epea: uztailak 24.
**7 Ingeiniari tekniko.** Sustapen ministerioa. Inginieritza Teknikoko edo Perito tituloa. Epea: uztailak 26.
**Zerbitzu anitzak.** Irurtzungo Udala (Nafarroa). Eskola Graduatua, LH 2 edo baliokidea; B-1 gidatzeko baimena. Epea: abuztuak 6.
**Administrari laguntzailea.** Castejoneko Udala (Nafarroa). Eskola Graduatua, LH1 edo baliokidea. Epea: abuztuak 6.
**Administrari laguntzailea.** Mendabiako Udala (Nafarroa). Eskola Graduatua, LH1 edo baliokidea. Epea: abuztuak 4.

**BESTELAKOAK**
**Alojamendu, Udarako Ekintza eta Turismo Informazioa.** Euskal Herrikoa, beste erkidegoetakoa eta atzerrikoa.
**Musikagida.** Bergarako musika talde bateko partaide bazara eta interneten dagoen MUSIKA-GIDAn agertu nahi izatekotan, jarri zaitezte gurekin kontaktuan.

**KARNETAK**
Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-posta: gzerbitzua@euskalnet.net
Ordutegia uztailaren 6tik irailaren 2ra:
Eguena: 09:00-23:00 eta 16:00-20:00
Eguakitza: 09:00-13:00
Abuztuko 2., 3. eta 4. astean, itxita

**OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.**

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Kemoltzo**

Ke-mordoa,
ke-piloa.

*-Etxe bat*
*erretzen egon*
*bia dau,*
*kemoltzo*
*galantak*
*ikusten die ta.*



JOSU OKINA

## Tenperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

| | Elosu | | | San Juan | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
| **Eguena 13** | 15 | 9 | *1,3* | 20 | 10 | *0,9* |
| **Eguakitza 14** | 13,5 | 10,5 | *11,8* | 19 | 14 | *9,1* |
| **Zapatua 15** | 14 | 12,5 | *11,6* | 19 | 16 | *7,1* |
| **Domeka 16** | 14 | 11,5 | - | 24 | 15 | - |
| **Astelehena 17** | 20 | 12,5 | - | 26 | 10 | - |
| **Martitzena 18** | 22 | 14 | - | 28 | 15 | - |
| **Eguaztena 19** | 20,5 | 13 | - | 29 | 12 | - |

## Farmaziak

**Eguakitza 21:**

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Zapatua 22:**

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Domeka 23:**

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Astelehena 24:**

CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Martitzena 25:**

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Eguaztena 26:**

CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Eguena 27:**

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

## Ogia

**Domeka 23:** Ogizun.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

## zorion agurrak



**Irantzu Bolaños**
Uztailaren 25ean
11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



**Eztizen Bolaños**
Uztailaren 27an
16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Eneko Larrañaga**
Uztailaren 27an
2 urte. Urte askotarako! Andres eta Mari Karmen.



**Amaia Garitano**
Uztailaren 28an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Aitor.



**Aritz Olaso**
Abuztuaren 19an
22 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Arantza Garitano**
Abuztuaren 5ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mikel Kortabarria**
Uztailaren 24an
6 urte. Urte askotarako! Etxekoak, Elisa, Julen eta Gorka.



**Nekane Varela**
Uztailaren 21ean
9 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Argiñe.



**Malen**
Uztailaren 22an
urtebete. Urte askotarako! Asier eta beste guztiak.



**Iñigo Gallastegi "Poti"**
Uztailaren 29an 28.
Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



**Olatz Ezkurra**
Abuztuaren 1ean
10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Leire Aperribai**
Abenduaren 20an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ion Urbieta**
Uztailaren 23an
8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Iulen Arana**
Uztailaren 24an 8 urte. Urte askotarako! Familiakoak eta lagunak.



**Jone Aranburu**
Abenduaren 2an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Joseba Zengotita**
Abenduaren 6an
3 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta etxekoak.



**Uxue Rodriguez**
Uztailaren 22an
9 urte. Urte askotarako! Julen, Eneritz eta lagunak.



**Sherezade Moreno**
Hilaren 23an 17 urte. Zorionak! Gurasoak, ahizpa eta Aitor.



**Nora Txintxurreta**
Uztailaren 22an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Aitor Agirrezabal**
Hilaren 30ean urtebete. Urte askotarako! Jone, Garazi, aitatxo eta amatxo.



**David Guisado**
Uztailaren 24an
15 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Gorka.



**Itxaso Uzin**
Uztailaren 22an
28 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Aitor.



**Alayn Carazo**
Uztailaren 29an
13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Silvia Valor**
Uztailaren 31n
18 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Julen Iñurrieta**
Abuztuaren 4an
11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Miren Txurruka**
Uztailaren 24an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Garazi Zubizarreta**
Uztailaren 31n
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Alazne Basterra**
Abuztuaren 10ean
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Eneko Martinez**
Uztailaren 31n
12 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Ainhoa.



**Txaro Herrera**
Abuztuaren 11n urtebetetzea. Urte askotarako! Senarra, Eneko eta Ainhoa.



**Ainhoa Mardaras**
Abuztuaren 20an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Iñaki Mardaras**
Abuztuaren 4an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ainhoa Martinez**
Irailaren 5ean
9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Eneko.



**Andoni Badiola**
Irailaren 6an
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Maider Uribe**
Irailaren 5ean
5 urte. Urte askotarako! Arantxa, Eneko eta etxekoak.



**Arantxa Arizaga**
Irailaren 7an
10 urte. Urte askotarako! Eneko, Maider eta etxekoak

## jaiotakoak

Aste honetan ez dugu jaso jaiotakoen berririk, ez Bergaran eta ez Antzuolan.

## hildakoak

**BERGARA**

**Jesus Mari Urriategi Luarizaristi**

Uztailak 14, 47 urte

**Nicolas Gallastegi Agirrezendoia**

Uztailak 16, 84 urte

## urbanoa

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**Geralekuak:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**

07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**Geralekuak:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

*Hurrengo alean, opor ondoko lehenengoa,*
***uztailaren 18tik irailaren 14ra***
*bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

## autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00,15:00, 17:05, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaieg.:* 10:00, 18:00, 18:35, 22:05.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:15*, 07:25, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:30*, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35*. *Zapatuak:* 07:15*, 09:35, 11:35, 13:35, 14:30*, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35*. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15*, 11:15, 14:30*, 14:35, 16:35, 18:35, 19:15*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 06:30, 07:30, 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 13:30, 12:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30 (Arrasateraino), 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jai egunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 09:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 13:20, 15:05, 17:05, 17:20, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.*

**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:15, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*

**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 10:20, 11:20, 12:15, 12:20, 13:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 19:45, 20:20. *Zapatuak:* 08:20, 10:20, 12:15, 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 19:45, 20:20. *Domeka eta jaiegunak:* 13:40, 15:20, 17:20, 18:45, 19:20, 20:20, 22:15.

**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:50, 07:00, 07:30, 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 09:00, 11:00, 13:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 14:00, 16:00, 18:00, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaiegunak:* 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunetan:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaiegunak:* 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 19:00.

**Bergara-Bilbo.** *Lanegunak:* 07:15, 08:40, 13:45 (Elgetaraino), 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaiegunaak:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak eta zapatuak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 19:30, 21:00.

**Bergara-Iruña.** *Lanegunak eta zapatuak:* 08:00, 14:00. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 18:30.

**Iruña-Bergara.** *Lanegunak eta zapatuak:* 10:30, 18:00. *Domeka eta jaieg.:* 17:00, 20:30.

# MUSIKA

▶ **Zartateko, Requiem, Los angeles de Charlie, X-at, Supercools, Bokata de merluza eta Hijojitron & The Black Motos** taldeak gaur, eguakitza, 21:00etan Kartzelan. Ondoren **Mansilla** eta **Ziarsolo**rekin rock & roll musika.

▶ **She Male Trouble** eta **Doctor Deseo** taldeak astelehenean, hilak 24, 23:00etan Soraluzeko plaza zaharrean.

▶ **Amaraun** taldea eguenean, hilak 27, 22:00etan Espoloian.

# ERAKUSKETAK

▶ **Ramon Arantzabal**en margoak Nahikarin uztailaren bukaerara arte.

▶ **Juan Jose Altuna**ren "Donostia, bere argia" margo erakusketa Digitex arte galerian (Usandizaga, 5) abuztuaren 12ra bitartean.

# LEHIAKETAK

▶ **VI. Baleike komiki lehiaketa**. A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak. Lanak uztailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dira. Irabazleak 50.000 pezeta jasoko du eta 30.000 pezetako bigarren sari bat egongo da. Argibideak: 943 86 10 56.

ERAKUSKETA

## *Sebastiao Salgado*

- Uztailaren 31ra arte
- Kultura Etxean

Egunotan Sebastiao Salgado argazkilari brasildarraren erakusketa ikusgai dago Kultura Etxeko erakustokian. Magnum argazkilari agentziako kidea, Sebastiao Salgado munduko argazkilaririk ezagunenetakoa dugu gaur egun. Besteak beste, "Principe de Asturias" sarietan arteen adarretako saria ere jaso du. Bere argazkien bitartez salaketa soziala jorratu izan du, munduan zehar diren kolektibo gutxietsienetakoak erretratatuz.Oraingo honetan Brasilgo lurgabeen mugimenduari buruzko argazkiak erakusten dizkigu. Guztira, zuribeltzean ateratako 45 argazki dira Kultura Etxean zintzilikatu direnak. Irudi gordinak kasu gehienetan, Sierra Peladako urre-meategikoak, Cazajeiras eskualdeko kotoi-plantazioetako langileenak, lehorte garaikoak, lurrik ez duten familien erretratuak edo hainbat kanpamenduko haurren eskolakoak dira. Erakusteta honekin 1980ko hamarkadan (argazki gehienak sasoi horretakoak dira) bere herrialdean ziren injustiziak islatu nahi izan ditu Salgadok, nekazarien egoera salatuz. Argazkiekin batera Jose Saramago idazle portugaldarraren testu bat eta Chico Buarque brasildarraren olerki bat irakur daitezke Kultura Etxean.

Erakusketa Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundeak jarritakoa da. Medicus Mundi 1962. urtean sortu zen Alemanian eta batik bat giza eskubideen alorrean egiten du lan munduan zehar, hirugarren munduko herrialdeen osasun egoera hobetu nahirik eta herrialde horiek dituzten arazoei buruzko informazioa zabalduz.



Erakusketan ikusgai dagoen irudietako bat.

# IKASTAROAK

▶ **Audio ikastaroa** irailaren 5etik 28ra bitartean, Kultura Etxeko Islada bideo tailerrak antolatuta. Argibideak 943 77 91 58 eta 943 75 20 51 zenbakietan jaso daitezke.

# DEIAK

▶ **Jardun** elkarteak datorren ikasturterako begirale lan poltsa bat osatu nahi du. Izen-ematea irailaren 7ra arte zabalik dago. Argibide gehiagotarako: 943 76 08 19.

▶ **EAJ**. Datorren eguenean, hilak 27, ez-ohiko batzarra egingo da Batzokian, arratsaldeko 20:00etan. Alderdikide guztiei bertara joateko deia egiten zaie.

▶ **Lasturreko (Deba) I.azoka ekologikoa** dome-

KONDE
PANADEROKUA

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

Zuri Beltz margoak
Barnealde eta kanpoaldeen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

kan, 9:00etatik 14:00etara. 25 produktore bilduko dira eta hainbat tailer izango dira ikusgai. Produktu ekologikoekin herri bazkaria izango da.

▶ **Gazte lokalaren aldeko mugimendua**k asteazkenero eta ostiralero, 19:15ean, Kartzela zaharrean egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

▶ **Txino jokoaren txapelketa** gaur, eguakitza, 23:00etan, Canalejas tabernan.

▶ **Laburmetraien bideo emanaldia** eguaztenean, hilak 26, 22:15ean Kartzela Zaharrean, Gazte Lokalekoek antolatuta.

▶ **Abiadura Handiko Trena**ren aurkako akanpada uztailaren 24tik abuztuaren 6ra Arrasaten. 943 79 94 49.

▶ **Arantzazuko Santutegira peregrinazioa** eta Loiolako Santutegira bisita uztailaren 25ean. Irteera Bergaratik goizeko 9:30ean, autobus geltokitik. Penitentzia komunitarioa izango da 11:00etan, 12:00etan Meza Nagusia Basilikan, 14:00etan erromesen bazkaria Hospederian, 16:15ean bideoa, 17:00etan Ama Birjinari agurra eta ondoren Loiolara irteera (Bergaran geldialdi bat egingo da). Arratsaldeko 20:00etan autobusak irtengo dira Loiolatik Bergarara. Autobus txartelak (850 pezeta) eta bazkarirako txartelak (1.950) San Antonioko Agirrebeñan, Zubiaurreko Garitanon eta Barrenkaleako Zatoian.

▶ **Bergarako Turismo Bulegoa** irailaren 17ra arte zabalik. Egunero bisita gidatuak antolatuko dira.

▶ **Eskoriatzako Museo Eskola** udan zabalik izango da, martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara.

▶ **San Martinetako tanborradan** parte hartu nahi duten 15 urtetik gorako gazteek Kultura Etxean eman dezakete izena uztailaren 28ra arte.

▶ **Bergarako Gazte Informazio Guneko** panel informatiboak Kultura Etxean eta Irizar Jauregian.

## JAIAK

▶ **Basalgo auzoko jaiak**: bihar, zapatua, ohiko txopo jasotzea 9:00etan eta plater tiraketa 16:00etan. Domekan, hilaren 23an, meza nagusia 13:45ean, 14:30ean bertso bazkaria Lazkao eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra soinujoleekin. Martitzenean, hilak 25, Meza Nagusia 10:30ean, 12:00etan txirrindulari igoera, 12:30ean pilota partiduak, 17:00etan Basalgoko IX. Dantza Txapelketa, 18:00etan idi-probak eta ondoren Gesalaga anai-arrebekin erromeria. Azkenik, hilaren 26an, 13:00etan meza eta ondoren luntxa eta umeentzat jolasak.

## ZINEA

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**
**Tango para tres**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
**Stuart little**
Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 22:30.
Martitzena: 17:00.

**ARRASATE. Alai zinema**
**Tango para tres**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
**Tarzan**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
**Toy story 2**
Astelehena: 17:00.
Martitzena: 17:00
**Alta fidelidad**
Martitzena: 19:00, 21:30.
Eguaztena: 19:00, 21:30.
Eguena: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Monterron**
**Atilano presidente**
Eguena: 22:30.

**EIBAR. Unzaga**
**El patriota**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:30.

**EIBAR. Rialto**
**Yo, yo mismo e Irene**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 17:00, 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**
**Yo y yo misma**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.



**TANGO PARA TRES**
**Zuzendaria:** Damon Santostefano.
**Aktoreak:** Matthew Perry, Neve Campbell. ▲ 13 URTE
*Oscar Nova* arkitekto ezagunari (Matthew Perry) bi enkargu agindu dizkio *Charles Newman* dirudunak: alde batetik Kultura Etxe bat diseinatzea; bestetik, *Amy Post* (Neve Campell) haren neska laguna zaintzea. Arkitektoa berehala maiteminduko da zaindu behar duen neskarekin...

**STUART LITTLE**
**Zuzendaria:** Rob Minkoff.
**Aktoreak:** Jonathan Lipnicki, Geena Davis, Hug Laurie.
ADIN GUZTIAK
E.B. White idazlearen klasikoan oinarritutako filmea errodatu du Rob Minkoff zuzendariak. *Little* familiak *Stuart* izeneko sagutxoa hartuko du eta sagutxoak familia baten bizimodua ezagutu ahal izango du gertutik. Efektu berezi aipagarriak eta umorea dira filmeko protagonista nagusiak.

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin
*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!*
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tf. 943 76 16 63

# Iñigo Elkoro eta Eukene Gracia presoak Bergaran joan zen astetik

**Joan zen astetik, herriko bi preso Bergaran dira: Iñigo Elkoro eta Eukene Gracia. Iñigori ongi-etorria joan zen eguakitzean egin zitzaion eta Eukeneri domekan. Lehenengoak ia urte erdi eman du espetxean; bigarrenak bederatzi urte, nahiz eta 1998. urterako kartzelatik kanpo izan behar zuen, orduko zigorraren 3/4ak beteta zeuzkan eta.**



**Iñigo Elkoro** Ia urte erdi Alcala-Mecon

## "Akusazio sendorik gabe bost milioi pezeta kendu dizkigute"



**G.** Zer moduz?

**E.** Ondo, kristoren poza ematen du berriz ere Euskal Herrian izateak. Dena den, sarritan burua espetxera joaten zait, hango kideengana.

**G.** Nolatan Sabino, Mikel eta zu kaleratu eta beste lau lagun barruan? Zein argumentu erabili ditu Garzonek hori erabakitzeko?

**E.** Garzoni galdetu. Erabakia erabat politikoa da. Hasieratik, atxiloketa aurretik, Garzonek ezker abertzaleari edozein modutan erasotzeko erabakia hartuta zeukan. "Egin" itxi zuen, Herri Batasunako Mahai Nazionala espetxeratu zuen, KASeko kideak espetxeratu zituen; azken kapituloa ezker abertzaleko nazioarteko egituretako kideak espetxeratzea izan da. Gu atera gara. Beste lau kideek akusazio berbera dute eta askatuak izan zitezen baldintza berdinak genituen guztiok. Zergaitik egin duen? Ezker abertzalearen aurkako presio politikoan eta txantaiari eutsi eta luzatzeko...

**G.** Baldintzapeko askatasunean egoteak zer suposatuko dizu?

**E.** Akusazio sendorik gabe, bost milioi kendu dizkigute. Egiten genuen lana ezingo dugu aurrerantzean bete, estatu españoletik ezin baikara atera. Sumario hau Garzon eta Estatuarentzat tresna oso baliagarria da. Hortan, zabalik euki eta nahi duenean erabiliko du.



**Eukene Gracia** 9 urte estatu espainoleko hainbat espetxetan

## "Estatuak ez du legea betetzen, eta inpotentzia handia sentitzen da"

**G.** Zer moduz?

**E.** Ondo eta pozik, familiarekin nagoelako berriz, eta aspalditik ikusi gabeko jendearekin. Bestalde, sentsazio kontrajarri bat bezalakoa ere badut, atzean jende ugari utzi dudalako eta ez dakigulako euren sufrimendua noiz amaituko den.

Granadatik hona nentorrela, presoen familien autobus batean, sufritzen duten guztia nere begiz ikusi ahal izan nuen: nekea, beroa... Hala ere, kexu bat bera ere ez nien entzun eta lehenbailehen itzultzeko irrikitan zeuden.

**G.** Hamairu urte eman dituzu Bergaratik kanpo.

**E.** Bai, nahiz eta bederatzi izan diren gartzelan. Beste kide batzuek euren herritik kanpo daramatenarekin alderatuz ez da asko.

**G.** Kalean egon behar zenuen 1998 urterako.



ARTXIBOA

**E.** Bai, zigorraren 3/4ak beteta nituelako. Legea ez da betetzen eta inpotentzia handia sentitzen da. Sufriarazi egiten dizute zure ustekin aurrera egiteagatik eta jarrera defendatzeagatik.

**G.** Espetxe batetik bestera eraman zaituzte.

**E.** Gero eta urrunago, gainera. Carabanchel, Badajoz, Salto del Negro, Ceuta eta Granadan egon naiz.

**G.** Epe laburrerako zein asmo daukazu?

**E.** Lagundu nauen jendearengandik hurbil egon eta bizitza normaldu.

# Apurtu egin da EAJ, EH eta EA alderdien arteko gobernu ituna

## Ondorioz, EH gobernutik kanpo geratuko da, oposizioan

**Atzo, eguena, EAJ, ETA-ren biolentzia gaitzezteko mozio bat aurkeztekoa zen gobernu batzordean. EA mozioarekin bat egitekoa zen; EH, aldiz, ez. Hori gertatzekotan EH gobernutik kanpo geratuko litzateke. Kontuan hartu, BERRIGARAko erredakzioa eguen eguerdian ixten dela. Ondorioz, hemen aipatutakoak aldaketarik izan dezake.**



Ia urtebete pasatu da irailaren 22an EAJ, EH eta EAko ordezkariek gobernu ituna sinatu zutenetik.

Gobernu ituna, 1999. urteko irailaren 22an sinatu zuten, EAJ, EH eta EAko ordezkariek. Orain, ia urtebete igaro ondoren, gobernu ituna apurtzekoa da. Eguen iluntzerako deitutako gobernu batzordeko bileran, Victoriano Gallastegi alkatea ETAren biolentziaren aurkako mozioa aurkeztekoa zen. Mozioa, EAJk Gipuzkoako hamabi Udaletan aurkeztutakoen artean dago.

Hau dio mozioak: "ETAk su etena hautsi zuenean, gatazkari irtenbidea aurkitzeko zabalduta zegoen usteak jipoi itzela jaso zuen. Talde armatuak berriro ere baztertu du herriaren borondatea, hau giza eskubideen erasoen aurka baitago, eta agiri hau sinatu dugunok sustatu dugun bide politiko eta demokratikoen aldeko erronkaren aurka jarri da". Atentatuak aipatu eta biolentzia gaitzeztu ondoren, konponbiderako bide bakarra elkarrizketa dela dio EAJren mozioak.

### EH GOBERNUTIK KANPO

EA, mozioa apoiatzekoa zen, EH, aldiz, ez. Ondorioz, EH kanporatu egingo luke gobernutik EAJk.

Udaleko gobernu batzordea sei kidek osatzen dute: EAJ alderdiko hiruk, EAko batek eta EHko bik. Horrela, EHko bi ordezkari horiek gobernutik at geratuko lirateke. Bestalde, EHko hiru kide, Ingurugiro, Euskara eta Hezkuntzako batzordeburu dira. Batzordeburu izateari ere utzi beharko diote.

Gauzak horrela, hauek nork ordeztuko dituen oraindik ez dakigu.

### ALDERDIEN IRITZIAK

BERRIGARA hiru alderdietako ordezkariekin egoten saiatu den arren, euren jarrera azaldu bai, baina EAJ eta EA alderdiek ez dute bestelako adierazpenik egin nahi izan. EHk bere aldetik, hau guztia "tranpa bat dela" uste du. Gobernuak iraun duen ia urtebetean, horrelako mozioak bost edo sei aldiz bozkatu dituztela azaldu dute EHko kideek, eta abstenitu egin direla beti. "Orain, maniobra hau martxan jarri du EAJk eta ezezkoa edo abstentzioa emanda gobernutik kanpo utzi gaitu". Honen aurrean galdera bat planteatzen du EHk: "zein organutan eztabaidatu eta erabaki da EH alderdia gobernutik bota eta akordioa apurtzea?"

EHren esanetan, mozioan soilik biolentzia gaitzezten da, eta ez da EH gobernutik kanpo lagatzearen inguruko ezer aipatzen. Horri lotuta, EHk ez du uste gobernu batzordea mozioa bozkatzeko marko egokiena denik, plenoa, aldiz, bai, "bertan zinegotzi guztiek hitz egin eta bozkatzeko aukera dugulako". Hala ere, gobernu batzordean bozkatu zen atzo. EHrentzat, bertan eman beharreko benetako eztabaida hauxe zen: ea zinegotzi guztiak ados dauden gobernua apurtzearekin. Eurak, hori fortzatu nahian akordioaren aldeko idatzi bat aurkeztu zuten egueneko batzordean.

**EH gobernutik kanpo utzita, Ingurumen, Euskara eta Hezkuntzako batzordeburu berriak hautatu beharko dira**

# Hildako egurren garrantzia panel informatiboetan jasota

**Ingurumen** batzordeak bultzatuta, Udalak bost panel informatibo jarri ditu San Martzial eta Gorlako aisialdi eremuetan. Paneletan, enbor eta zuhaitz zaharrek ekosisteman duten garrantzia azaltzen da. Hildako egurrari lotuta bizidun asko dago: onddoak, intsektuak, hegaztiak, ugaztunak... Bizidun horien kontserbaziorako oso garrantzitsuak dira hildako egurrak.

Europan, kontserbazio arazo handiena duen ornogabe taldea, hildako egurretan bizi den animaliena da. Hauetako espezie asko desagertutzat ematen dira. Onddo eta goroldio espezie ugari ere gutxitu egin da.

Ekimenaren helburua, hildako egurra ahal den neurrian mantendu eta errespetatzea da.



Panelak, San Martzial eta Gorlako aisialdi eremuetan jarri dira.

## Atentatuen kontrako kontzentrazioa

**Juan Jose Ibarretxe** lehendakariak egindako deialdiari erantzunez, ETAren azken atentuen kontrako kontzentrazio isila egin zen astelehen eguerdian San Martin plazan. Udaltzaingoak adierazitakoaren arabera, 100 bat herritar izan ziren bertan, tartean alkatea eta beste hainbat udal ordezkari.

## Gobernuz kanpoko erakundeei laguntza

**Udalak** 6.355.000 pezeta banatuko ditu Gobernuz Kanpoko lau erakunderen artean. Aurrekontuaren %90 kooperaziora zuzenduta dago, eta %10 herritarrak kontzientziatzeko sentsibilizazio kanpainetara.

# Martoko auzoko eskolako patioa berriztuko dute

**Martokon** dagoen haurrendako eskolako patioa egokitu egingo da. Patioa egoera kaskarrean dago: zuloak daude, eta ubideak ere desegoki daudenez, putzuak sortzen dira.

Patioa, eskolako haurrek jolasteko erabiltzen dute atsedenaldian; hainbat ziburu ere badira bertan.

Hori dela eta, patioa asfaltatu egingo da, dauden zuloak estaltzeko. Horretarako, lur guztia pikatu egingo da eta iragazkaitz egin.



Bestalde, ubideak ere konponduko dira, eta patioak erdialdera malda izango du, ura patioan geratu ez dadin.

Lan hauen aurrekontua 6.086.520 pezetakoa da eta Construcciones Arreta C.B.k egingo ditu. Noiz hasiko diren zehaztu gabe dagoen arren, ikasturte berria hasi baino lehen amaitzea espero da. Hala ere, Jose Antonio Etxeberria Hirigintza batzordeburuak zaila izango dela azaldu du.

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

Agirrebeña
JATETXEA
Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

# Miguel Altuna Institutuak eta Matz-Errekak lankidetza hitzarmena sinatu dute

**Miguel Altuna** Institutuak eta Antzuolako Matz-Erreka Kooperatibak lankidetza hitzarmena sinatu zuten joan zen eguaztenean. Hitzarmenaren oinarrizko helburua, lanbide heziketa, inguruko enpresen beharretara egokitzea da.


Jose Mari Larrañaga hitzarmena sinatzen. Ezkerraldean Mikel Agirrezabal.

Oinarri hori kontuan izanda, Miguel Altuna institutuan, plastikoa eta kautxogintza lantzeko goi mailako heziketa ziklo berria jarriko da abian irailetik aurrera. Izan ere, hori da Matz-Errekak egiten duen gauzetako bat. Mikel Agirrezabal kooperatibako zuzendari gerenteak ekitaldian esan zuenez, "inguruan ez dago horrelako ikasketak eskaintzen dituen beste ikastetxerik. Horregatik, Miguel Altunan eskola horiek eskaintzea oso egokia da, langile espezialduak aurkitzea zaila baita".

Zikloa ikasturte berriarekin hasiko da, irailean, eta 21 ikaslek eman dute izena. Hitzarmenak Matz-Errekako langileak ere hartzen ditu kontuan: oinarrizko eta lanbide formaziorako ikastaroak antolatuko dira bertako langileentzat. Jose Mari Larrañaga Miguel Altunako zuzendariarentzat oso garrantzitsua da hitzarmen hau, izan ere, "inguruko gazteei lan mundurako beste ate bat irekitzen die, eta enpresa batentzat horren garrantzitsuak diren langile kualifikatuak bermatzen ditu".

Sinatze ekitaldian, Jose Mari Larrañaga eta Mikel Agirrezabalez gain, Juanjo Arrieta Bergarako alkarteordea eta Mireia Unamuno Antzuolako alkatea izan ziren, kooperatiba eta ikastetxeko beste kide batzurekin batera.



# Berrigara

419 zenbakia.
2000ko uztailaren 21a.

**Irizar jauregia. Barrenkalea 33.**
**20570 Bergara.**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Posta elektronikoa:**
**berrigara@topagunea.com**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Iban Arantzabal.
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Sebastiao Salgadoren "Lurrik gabe" argazkia

Tirada: 5.300 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** · **Gipuzkoako Foru Aldundia** · **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### SALAKETA

ELAk Antzuolako Elay Industrial enpresak, inolako justifikaziorik gabe eta diskriminagarriak diren arrazoiengatik aldi baterako langile baten kontratua ez berritzeko hartu duen erabakia salatzen du. Erabaki hau larriagoa da, langileekin dituen harremanak aurrerakoitzat jotzen dituen enpresa baten eskutik baitator, eta, gainera, egoera ekonomiko ezin hobean dagoen enpresa delako, Mexikon ere hedatzen ari delarik. ELAk bere egiten du Langileen Biltzarrak hartutako erabakia, eta egoera hau salatzeko antolatu diren mobilizazioekin bat egiten du: atzo, uztailak 13, Antzuolako plazan kontzentrazioa burutu zuten langileek, eta herriko jaiak direla eta urteroko enpresako afariari boikota egin zien. Gainera, irailean, oporretatik bueltan, Lan delegaritzara komunikatuko diote greba mugagabearen hasiera.

*ELA*

### AUPA BASI!

Oraintxe bertan jakin dut berri txarra. Entzuteaz bat nere burura oroitzapen batzuk etorri zaizkit, eta lerro hauen bidez kontatu nahi nituzke. Burura etorri zaidan lehenengo gauza Bergaran egon nintzen azken eguna da, hain zuzen ere Bergaratik irten baino apur bat lehenago ikusi ninduzunean. Dei egin zenidan egun hartan egon ziren atxiloketen berri emateko; niregan ere eragina izango zuten susmoarekin, gertatu zen moduan. Baina egun hartan ezin izan nuen zurekin hitzegin, nire buruan nuen gauza bakarra lehenbailehen ihes egitea baitzen, bestela txakurrek harrapatuko nindutelako.

Orain, berandu den arren, eskerrak eman nahi dizkizut detaile horregatik. Horregatik, eta izan dituzun beste hamaika detailegatik ere, beti egon baitzara hor, gure Euskal Herriari ahal zenuen guztia emanez. Gogoan daukat, espetxetik idatzi nizun gutunetako batean esandakoa, "Euskal Herria aske izaten deneko lehenengo dantza elkarrekin egingo dugu", zure ametsik haundiena gu guztiok gure herrian ikustea baitzen.

Dagoeneko ez da posible izango, lehenago utzi gaituzulako. Baina Basi, ez zaitez kezka, egun horretan zu ere present egongo zarelako, zerura begiratzean gure artean beste izar bat izango dugulako.

Esan nahi dizut, azken urte hauetan, osasunak zaparradaka ihes egiten zizun bitartean, beti jakin izan dudala nola egon zaren, zuk-zeuk ere asko maite zenituen lagunen bitartez, bereziki Pili Kortazarren bidez. Pili berak kontatu zidan bart berri tristea eskutitz baten bidez.

Orain, zauden tokian zaudela, atsedena har dezazula nahi dut, eta beti egin duzun moduan, guri animoak ematen jarrai dezazula. Ados?

Bueno Basi, lerro hauetan lagatzen zaitut, baina beti egongo zara gure bihotzetan. Betirarte, zure lagun Aska.

Jo ta Ke Irabazi Arte!

*Mikel Askasibar Garitano*
*Euskal Preso Politikoa*
*Herrera de la Mancha-tik.*

**BERRIGARA OPORRETAN**

Aste honetako alea udako oporraldien aurreko azken zenbakia duzue.
Hurrengo alea, 420.a, irailaren 8an kaleratuko dugu.
Bien bitartean, ondo izan!

## tira biraka gorka ortega & jon alvarez



## atrebentzia ezpada

# *Gero eta jende gehixagok hartzen dittu oporrak abuztua ez dan beste hille batian. Zuk zeuk, noiz nahixago dozu?*



**Juan Alkorta**

Ekaiñian edo iraillian hartzia nahixago, abuztuan jende gehixegi egoten da danian. Orain berdin dost, jubilauta nago eta.



**Karmen Pescador**

Abuztuan, gizonak be orduantxe hartzen dittu eta. Sekula ez dogu pentsau beste egun batzutan hartzia. Ohitturia izango da.



**Begoña Oiartzabal**

Urtian zihar. Orain arte abuztuan hartzen giñuzen beti, baiña aurten ekaiñian hartu dittugu egun batzuk eta abuztuan beste batzuk.



**Eneko Altube**

Abuztuan hartzen dittut oporrak, ohitturiagaittik be izango da, baiña eguraldi onenak be abuztuan egitten dittu.



**Manuel Egibar**

Abuztuan. Beti hartu izan dittut abuztuan, eta horixe da neretako normalena. Dana dala, uztailla be ez da hillabete txarra oporretarako.



**Rosario Montero**

Abuztuan nahixago dot, ohitturia izango da. Baiña uztaillian hartzia be gustauko litxatake. Bi horrek dira oporretarako onenak.

## bai, esan!

*Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.*

### UDAKO KULTUR ESKAINTZA DELA ETA

**Jose Alberdiren** deia jaso dugu aste honetan BERRIGARAN. Jose Alberdik zorionak eman nahi dizkio Udaleko arduradunei udako gauak kultur programazioarekin alaitzeko egindako ahaleginagatik. Jose Alberdi uztaileko ostegunetan Espoloian antolatutako jazz kontzertuetan izan da eta kalitatezkoak iruditu zaizkio orain arte entzundakoak. Udan gaueko giroa pizteko horrelako ekitaldiak oso aproposak direla dio eta neguan ere leku itxietan astebarruko eskaintza indartzea ondo legokeela dio Josek. Era berean, abuztuan herrian geratzen direnentzat eta etorri daitezkeen turistei begira, San Martin plazan, aire librean zine emanaldiak antolatzearekin guztiz ados dago.

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma
Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

izeder
ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak
943 76 71 05. Arruriaga 2

BANKINTER
Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean
%3,25* etik aurrera
*Irekiera komisioa: %1
*Lehen 6 hilabeteak
*35 urte bitarteraino

POL-POL
Taberna
943 76 07 78


**adituen esanetan**

# Ehiza txakurrak udan



ROMAN LAZPIUR

*Albaitaria*

Abuztuaren erdialde inguruan ehiza denboraldia zabaltzen da, eta sasoi honetan ehiza txakurrekin kontuz jokatu behar da. Alde batetik, txakurrek, kotxean eramatean, beroaren erruz, arnasa hartzeko arazo larriak izaten dituzte. Kontuan izan txakurrek ahotik bakarrik transpiratzen dutela, eta, zenbaitetan, kotxea eguzkitan lagaz gero, 50ºC inguruko tenperatura jasan behar izan dutela. "Golpe de calor" izenaz ezagutzen den efektu horren ondorioz txakur asko hil dira, jendeak uste baino ohikoagoa delako. Beraz, komenigarria izaten da ehizan egin eta gero txakurra kerizpean eta ura alboan duela lotuta lagatzea. Era berean, txakurra zuzenean ekartzea, geldiunerik egin gabe (derrigorrezkoa ez bada behintzat) animaliarentzako ona izango da eta karroan bustita sartzea ere ondo dator, beroa hobeto jasan dezan.

Bestalde, erleen, listorren edo biboren pikatadak ere izaten dituzte txakurrek udan. Honelako kasuetan antidotoak hartzea gomendatzen da.

*"Abuztuaren erdialde inguruan zabaltzen da ehiza denboraldia, eta, beroaren erruz, ehiza txakurrek arazoak izaten dituzte uda partean"*

Hirugarrenik, hanketako arazoak leudeke. Txakurra garia dagoen zelaietan sartuz gero, oinzola urratu egiten zaie eta hori saihesteko "almohadilla" izenez ezagutzen direnak gogortzea komeni da, hankek horrenbeste ez sufritzeko.

Azkenik, zenbait kasutan galburuak ("avena loca" deritzonak) sartzen zaizkie txakurrei bietz tartetan, belarrietan edo begietan. Bietz tartetan sartuz gero, galburua haragi barrutik atera eta infekzioen kontrako antibiotikoak hartzea beharrezkoa izaten da. Begien kasuan galburuek ultzera bat sortzen dute. Begietatik malkoak darizkie eta minaren erruz begiak itxita izaten dituzte. Hori sendatzeko ere txakurra tratamenduan jarri beharra dago. Bukatzeko, belarrien kasuan, galburua dagoen aldera burua makurtzen dute txakurrek eta ikutuz gero mina somatzen dute. Pintza berezi batzurekin galburua atera eta belarrira tanta batzuk bota.



Erleen, listorren edo biboren pikatadak ere jasaten dituzte txakurrek udan.

**bergarako errotak**



## ERROTAGOIKOA

Ondorengoak bizi ziren Errotagoikoan 1890ean, orduko zentsu ofizialaren arabera: J. Francisco Azkarate Mujika, 68 urtekoa, okina, irakurtzen eta idazten ez zekiena, eta Luziano Azkarate Argarate, 32 urtekoa, errotaria, irakurtzen eta idazten bazekiena.

1895ean Kruz Azkarate zegoen Errotagoikoan errotari.

1933. urtean Luziano Azkarateren izenean eman zitzaion alta industria erregistroan irina egiteko herri-errota gisa eta 1939tik aurrera argindarra sortzearen kuota ere ordaindu izan zuen. 1948tik 1961era bitartean Kandido Azkarateren izenean egon zen. 1961eko urte hori izan zen herri-errota moduan funtzionatu zuen azkeneko urtea.

Bestalde, 1930eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak honako hau dakar:

*"Kandido Azkarate Bergarako bizilagunak adierazten du Elgeta errekako urak erabiltzen dituela Bergarako lurretan duen Errota-Goikoa izeneko errotan indarra sortzeko, eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kantitatea, bataz beste, 150 litro/segundokoa da eta ur-jauzia 3,30 metrokoa.*

*Eta hau guztia herritarrei jakinarazten zaie..."*

Kruz Azkarate izan zen bertako azkeneko errotaria. 1917an jaio zen.

Elgeta-errekako urak erabiltzen zituen eta bere eskumatara dago.

Pago-egurrezko bi turtuki zituen, 1936a baino urte batzuk lehenago, lehengo usteldutakoen ordez, jarritakoak. 1981ean artean bere lekuan zegoen egurrezko turtuki horietako bat. Hauxe izan da Gipuzkoan egurrezko turtukiak zituen errota bakarra, gainontzekoek burdinazkoak erabiltzen zituzten eta.

Harriak pikatzea ere Kruzek berak egiten zuen eta ehotakoaren %10eko laka kendu ohi zuen.

Kokapena: Bergaratik Elgetarako bidean, Barrutiko errotatik ehun metrora, ezkerraldetik igota.

Antxon Agirre Sorondo





# Umeak begiraleen bila

**Udalekuetako haurrak** kalera atera ziren eguaztenean, **"Begiraleen bila"** izeneko ohiko jarduera zela eta. Udalekuetan ari diren begiraleak mozorrotu egin ziren eta herri barruko hainbat txokotan kokatu ziren, neska-mutikoak engainatu nahian. **Begiraleak udaltzain, turistarena, eskale, moja eta yuppi mozorrotu ziren** besteak beste, eta gaztetxoek identifikatu beharra zeukaten. Eguardirarte izan ziren jolasean eta herritar bat baino gehiago harrituta geratu zen kalean horren pertsonaia kuriosoak aurkitzeagatik. Udalekuei datorren uztailaren 28an emango zaie amaiera.

# "Txato" iskoak errekorra gertu



**Basalgoko Mostei baserriko "Txato"** izeneko iskoak errekorra hauts dezake datozen hilabeteetan. Mosteiko **Joxe Igartzaren** arabera, aurreko errekorra tolosar baten iskoak lortu zuen duela hiruzpalau urte, **kanalean 1.204 kg.ko pisua** emanez. Duela gutxi **Pedernales** bizkaitarrak 27 kg.gatik ez zuen errekorra hobetu. Adituen ustez, Igartzaren iskoak errekorra hausteko aukera handiak ditu. "Txato"k 8 urte ditu eta azken biak ikuiluan eman behar izan ditu. Artoa, garagarra eta babiaz osatutako konpuestoa jaten du nagusiki eta hanketan arazorik ez izateak zerikusia izan du horren pisu handia lortzeko. Baliteke urri aldera Felix Igartzak "Txato" hiltegira eramatea. Oraindik eroslerik ez duen arren, ziur eskaintzarik ez zaiola faltako. Goiko argazkia duela hilabete batzuk aterata dago eta ordutik pisu handiagoa hartu du "Txato"k.

# Errotonda berria Ibargarain



Aste honetan **Ibargaraiko errotonda** egiteko lanak hasi dira eta trafiko mozketak izan dira berriz kale horretan. Ibargaraitik edo Zurraderotik datorren trafikoa Belanbide kaletik Ramon Maria Lili kalera bideratuko da lanak amaitu arte. Bestalde, bariantetik herrirako sarrera San Antoniotik edo Arrizuritik egin beharko da. Errotonda egiteko lanak **15 egun** barru bukatzea espero da.

# Oporretan, baserrira!

## Bergaran eta Antzuolan nekazal turismo etxe bana dago


Lamaño-Etxeberri duela urtebete zabaldu zuten.

**Jakineko kontua da ia ia ezinezkoa dela gaur egun baserritik bizitzea. Baserritarrek esaten dutenez, baserriak ez du ezertarako ematen. Gehienak lantegietan edo baserritik kanpo, behintzat, ari dira lanean. Nekazal turismo etxe bat jartzea, baserritarrendako irtenbide edo laguntza bat da. Bergaran badugu bat, Lamaño-Etxeberri hain zuzen ere; eta baita Antzuolan ere, Ibarre baserria.**




San Martzialerako bidean goazela, ezkerraldera markatzen digun "Nekazalturismoa" dioen seinale bat ikusten dugu. Pinuarteko bide aldapatsu hori hartu, eta berehala iristen gara Lamaño-Etxeberrira. Paraje ikusgarrian dago, zelai eta bista paregabeez inguratuta. Duela urtebete ireki zuten Maite Aristegik eta bere sendiak. Gezurra dirudien arren, berri-berria da, hutsetik hasita egindakoa. Alboan dago, metro batzuk harantzago, Lamaño-Etxeberri zaharra, animalien bizileku bilakatuta.

Antzuolan ere badago beste nekazal turismo etxe bat: Ibarre baserria. Lamaño-Etxeberri ez bezala, Ibarre baserria kaletik bertan dago, Irimoegi auzoko lehen baserria da, Antigua auzoko etxeen ostean. Iritsi bezain pronto bizkotxo eder bat ikusten dugu, eta horrekin batera, "kafetxo bat?" eskaintza paregabea egin digu Pilar Belastegik.

### NATURA ETA TRATU FAMILIARRA

Batik bat uda partean, baina baita Aste Santuan eta urtean zeharreko zubietan ere, asko dira beraien oporrak nekazal etxeetan pasatu nahi dituztenak. Maitek eta Pilarrek argi asko daukate zer den jendeak bilatzen duena: alde batetik, lasaitasuna, naturarekin harreman zuzenean egotea, eta betiko hotelek eskaintzen dutenarekiko zerbait ezberdina topatu nahi izaten dute bezeroek; bestetik, baita tratu familiar bat ere, harreman pertsonal bat izatea. Begibistakoa da honen garrantzia, izan ere, "asko dira urtero-urtero etortzen direnak, ia familiakoak bailiran" azaltzen digu Pilarrek. "Orduak eta orduak ematen ditugu bezeroekin berriketan" dio Mai-



Ibarre baserria kaletik gertu dago, Antiguako etxeen artean.

tek. Bezeroen perfilari dagokionean, denerakoak izaten diren arren, gehienak katalanak etortzen dira, eta baita Valencia eta Madrilekoak ere. Gehienbat bikote gazteak izaten ei dira.

Bezero gehientsuenak hirietakoak izaten direnez, baserri mundua eta bertako bizimodua ezagutzea nahi izaten dute. "Askok eskatu izan digu ia behiak jeisten ikustera etorri ahal daitekeen". Baratzean lanean dihardutela ere, askotan geratzen ei dira begira-begira. Hiriko jendearentzat zerbait berria da, ezberdina. Euren burua naturaren erdian eta nekazal munduan ikustea bilatzen dute. Aurtengo udan ere arrakasta handia izan dute bi baserriok, jadanik beteta daude eta.

### INDUSTRIARI ESKERRAK

Hala ere, argi dago kostaldea nahiago izaten duela jende gehienak. Eta nekazal etxeen kasuan ere, noski, kostaldekoek izaten dute arrakastarik handiena. Baina urtean zehar bizirauten badute, hori gure eskualdean dagoen industrializazioari eskerrak da. Maitek dioskun bezala, "bailara honetan mugimendu handia dago, industria bera indartsu dago, eta horrek mesede ederra egiten digu. Gero, industriari esker, karanbola efektuz edo, bestelako mugimendua ere sortzen da, bai kirol mailan, eta baita eskualdeak eskaintzen dituen bestelako jardueretan ere". Pilarren esanetan, "inguruko enpresa handietara komertzial, biajante eta langile asko etortzen da, eta hori aukera paregabea bihurtzen da gurea bezalako nekazal etxeendako".

### BASERRITARRENTZAT LAGUNGARRI

Asko entzuten da gaur egun baserria gainbehera doala. "Baserriak ez du ezertarako ematen, lana ugari eta beste ezer ez", dio Pilarrek. Nekazal turismo etxe bat jartzeak baserriaren martxarekin jarraitzeko aukera ematen du, eta era berean, diru sarrera lagungarri bat eskaini. Hala ere, Maitek azaltzen digun bezala, "jarduera osagarri bezala ulertu behar dugu beti ere, bestela, galdu egingo litzateke baserria, eta hori ekimen honen jatorrizko helburuaren aurka joatea izango litzateke". Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hau bultzatu bazuten, baserriari eta baserriaren jarduerari eusteko izan zen. Horregatik, nekazal etxe bakoitzak ezin du 6 logela baino gehiago eduki, hau da, 12 bat pertsonarentzat tokia.

### IBARRE: LAU URTEKO IBILBIDEA

Laster etorriko dira lau urte Ibarre baserria konpondu eta nekazal turismo bilakatu zenetik. Pilarren senarrak, Eusebio Gabilondok, Antzuolako lantegi batean dihardu lanean, eta Pilar bera jatetxe askotan lanean ibilitakoa da: "18 urte neuzkanetik orain dela lau urtera

## Lasaitasuna, naturarekiko hurbiltasuna eta tratu familiarra bilatzen ditu jendeak



Ibarreko bezeroek bertan gosaldu eta afaltzeko aukera dute.


Lamaño-Etxeberriko bezeroek sukaldea erabil dezakete.


Gehienez 6 logela izan ditzakete baserriek.

arte makina bat jatetxetan ibili naiz ni zerbitzari, eta baita sukaldari ere. Beti gustatu izan zait ostalaritza, jendearekin tratatzea, jende ezberdina ezagutzea". Beraz, baserriaren egoerari aurre egiteko era bat bezala ikusten du, eta era berean, asko gustatzen zaion lanbide bezala ikusten du Pilarrek. Hasiera batean jatetxea jartzeko tentatuta egon ei ziren Ibarretarrak, baina gehiegitxo iruditu ei zitzaien. "Hau, berriz, neuk bakarrik aurrera ateratzeko bezalakoa da, eta oso gustura nabil".

Etxea oso egoera kaskarrean zeukaten; beraz, bota eta berri-berria eraiki zuten nekazal turismoa egiteko. Orain, alderdi bat beraien etxebizitza da, eta bestea, berriz, bezeroendakoa. "Aldundiak ere eman zigun laguntzatxoren bat, baina gutxi samar, senarra lanean dabilenez, mistoak garenez..." Lau logela dauzkate bezeroendako, eta gosaria eta afaria ere eskaintzen dute.

## LAMAÑO-ETXEBERRI, GANADUA ETA OSTATUA UZTARTUZ

Maite Aristegi eta bere sendia, berriz, baserritik bizi dira; ganaduak dauzkate, bai esnetarakoak, eta bai okelatarakoak ere. Maite EHNEko idazkaria da gaur egun, baina laster uztekotan dabil, baserrira soilik dedikatzeko. Oraintxe urtebete ireki zituen bere ateak Lamaño-Etxeberrik, eta oso ondo ei doakie orain arte behintzat.

# Nekazal turismoa baserritarrentzat laguntza osagarri bezala ulertu behar da

Bi sendientzako banandutako etxebizitzak egiteko asmoa zuten: "baserritik bakarrik bizi garenez, eta oso gogorra denez bizimodu hori, gure aukerak aztertu eta nekazal turismo etxe bat jartzea erabaki genuen". Oraingoz 6 logela dauzkate, esan bezala, hori da eta muga; baina denborarekin apartamenturen bat ere jarriko ei dute beharbada. Ibarrekoek baino diru-laguntza handiagoa izan zuten Lamaño-Etxeberritarrek, esan bezala, baserritik bizi baitira. Bertan gosaria ematen dute, baina ez besterik. Hala ere, bertan bazkaldu edo afaldu nahi dutenek sukaldea erabiltzeko aukera dute, eta "oso eskertzen dute hori, umeak dituztenek batez ere".

Bai Lamaño-Etxeberri eta bai Ibarre detaile ugarirekin hornituta daude. Bezeroak asko eskertzen ei du hori. Antzinako altzariak, argazki zaharrak, garai bateko josteko makinak, antzinako erako lanparak...Kontu handiz zaintzen dituzte era honetako detaileak.

## LANDAETXEAK

Lamaño-Etxeberri eta Ibarre baserriak nekazal turismoak dira, baina badira landaetxe izeneko beste baserri batzuk ere. Bi hauen arteko ezberdintasuna honakoa da: lehenengoek, nekazal etxeek, baserriko jarduerari eutsi behar diote, gutxieneko bat ekoiztu behar dute. Baserri bat landaetxe izateko, berriz, nahikoa du nekazal ingurune batetan egotearekin. Maite Aristegik EHNEko idazkari bezala ere hitzegin digu, eta, bere esanetan, poliki-poliki, nekazal etxeen alde egiten ari da Gobernua, eta hori positibotzat jotzen du, horrek baserriari eustea dakarrelako. Hau da, nekazal etxe bat irekitzeko gutxieneko produkzio bat eskatzen dute gaur egun, baldintzak gero eta gehiago dira, baina horrek nekazal bizimoduari eusteko balio baldin badu, positibotzat jotzen du Maitek.<

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

Matxiategi Elektragintza S.L.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

FRONTOI TABERNA
Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

**Aritzek 20 urte dauzka eta Eibarren Ingenieritza Teknikoa ikasten dihardu. Xipizarok urtero antolatzen dittuan udaleku irekietako begiraletako bat dogu. Aurten du bere lehenengo aldia, eta bere arrebak animatuta apuntatu zan.**

# *Aritz Gallastegi*

**Umezale amorratua izango zara, ezta?**
Bueno, amorratu-amorratua...Baina umeren bat ikusten doten bakoitzian hurbiltzen naiz berarengana.
**Zenbat ume eduki dittuzu zure kargura egun hauetan?**
Bi begiralen artian hogei umeren kargu egin gara.
**Neskatillak ala mutikuak gaiztuenak?**
Gure taldian behintzat mutikuak.
**Etorkizunian umiak edukitzeko gogua ez jatzu jun?**
Eeez!
**Pazientzia haundiko mutilla zara?**
Segun zertarako. Umiekin bai.
**Zeu zelakua ziñan umetan?**
Hori nik ezin dotsut erantzun; igual nere amari galdetu bihar.
**Udalekutara juaten ziñan?**
Ez, sekula ez naiz egon; gurasuekin juan izan naiz beti oporretara.
**Gehixen gustatzen jatzun jolasa?**
Onena da: "egon danok ixilik!", baiña ez dau funtzionatzen.
**Eta umetan?**
Gauza arraro samarrak; adibidez, patiñetan futbolian jokatzia, diabolua...
**Uztaillian irabazittako dirutxo horrekin zer egingo dozu?**
Kotxia konpondu; bueno, kotxia konponduta daukat: orain zorrak ordainddu.
**Nora juateko asmua daukazu?**
Ezkaraira, gurasuekin.
**Aukeran, hondartza ala mendixa?**
Bixak gustatzen jat; onena bixak konpajinatzia da.
**Umiak faltan botako dittuzu, ezta?**
Ez dot uste.
**Zergaittik egon zarete hain mutil gutxi begirale moduan?**
Jende askok nesken kontua dala pentsatzen dabelako.
**Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?**
Neguan eskiatzia, frontoia be bai, eta, zela ez, neskiakin egotia.
**Maitteminduta zare, eh?**
Bai, oso!!!
**Pelotia gustatzen jatzu, orduan.**
**Pelotari gustokuena?**
Beloki.
**Tourra zeiñek irabaziko dau?**
Armstrongek.
**Egunkarixa, irratixa ala telebista?**
Telebista, ni oso nagixa naiz.
**Galtzen ez dozun saio bat?**
"Gran hermano", erdi engantxatuta egon naiz; lehen egunero ikusten neban.
**Udarako plan bat jarriko dotsut: irla desertu batera juango zara, zer eramango ziñuke?**
Nobixia.



Bizkotxoak, erreilenoak eta tostoiak
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374-SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.

IRURAK PINTURAK S.L.
ERA GUZTIETAKO LANAK · PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA · HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA · IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
Biona BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



# *Santamaiñatarrak, 1933*

Santa Marina eguna ospatu zen martitzenean, uztailaren 18an. Aste honetako erretratua Santa Marinarekin lotuta dago: bertan agertzen direnak "santamaiñatarrak" ditugu, Juste Amenabarrek esan digunez. Erretratua 1933.ekoa da. Gerra aurretik, herriko gazte talde batek Don Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarrak idatzitako "Izeko aberatsa" izenburuko lana antzeztu zuen Santa Marinan. Don Nemesiok berak zuzendu zuen antzezlana eta gazteek (15 bat urte izango zituzten orduan) maila bikaina erakutsi zuten. Lana Santa Marinako sakristian antzeztu zuten hainbat aldiz, domeka arratsaldeetako elizkizunaren ostean. Arrasatera joateko gonbidapena ere jaso zuen taldeak.

Euskararen alde lan egiteagatik handik urte batzutara Don Nemesio Etxaniz Euskal Herritik kanpo bidali zuten. Duela gutxi berari eskainitako omenaldi ekitaldiak izan dira. Argazkia Katabiako "Elizpe txikian" aterata dago eta honako hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Pedro (Elosuko mutila), Nieves Zabaleta, Antoni Irala, Maria Gisasola, Jesusa Irala, Luisa Berasategi, Pilar Larrañaga, Juste Amenabar eta Juanita Larrañaga.

**Jarrita:** Juanita Gisasola, Jesusa Raimon, Carmen Raimon eta Ines Gurrutxaga.

*Argazkia: Juste Amenabar*

**ADI!**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu.
Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

PISZINETAKO TABERNA
Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak
*Boni Laskurain z/g*
*Tf. 943 76 53 55*

Zumelaga
JATETXEA
58 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25



# Udalak eta politika ekonomikoa

**Fermin Lazkano** / Langilea

Orain hiru aste, Bergara ez den herri bateko alkatearekin bazkaldu nuen. Normala den moduan, hainbat gairi buruz hitz egin genuen, baina berehala nagusitu zen horietako bat.

Gaia, Udaletan sarri hartzen den erabaki baten inguruan korapilatuz joan zitzaigun. Izan ere, Udalek zerbitzuak garbiketa, mantenimendua eta abar azpikontratatzeko joerari buruz jardun genuen.

Bera horren aldekoa zen zeharo. Bere arrazoiak, nagusiki, hiru: Udalak funtzionario gutxiago edukitzea, lanaren eragin-kortasuna handitu egiten dela eta azkenik, errentagarriagoa dela herriarentzat.

Hirugarren arrazoiaren haritik idatzi nahi dut artikulu hau. Bi dira jarduera ekonomikoa arautzen duten ardatzak: merkatuaren legeak eta herritik goragoko instituzio politikoek ezartzen duten politika ekonomikoa.

Lehenari dagokionez, ez gara luzatuko, gutxi asko denek ezagutzen ditugulako, batzuek ederki aprobetxatzen dituztelako eta gehienek, ezinbestean jasan behar ditugulako. Bigarrenari dagokionez, besteak beste, hiru dira politika horien ardatzak: enplegua sustatzea, hazkuntza ekonomikoa eta prezioen oreka.

Garbi dago lehen bietan Udalek badutela zer esana. Eta helburu horiek betetzea dela Udalaren jardunaren errentabilitate neurria. Hasieran adierazi dudan adibidea har daiteke. Demagun garbiketa zerbitzua azpikontratatu nahi dela. Funtzionario gehiago nahi ez bada, zergatik ez enpresa misto bat egin kanpoko enpresa arrunt bat –Dragados, esate baterako– azpikontratatzea baino?

Eta alkate haren zalantza adierazpena: zer nolako enpresa mistoa ordea? Ba, nire ustez, kapitalean Udalaren zati bat daukana eta langileen artean kudeatuko litzatekeena. Gizarte ekonomia deritzana (kooperatibak, SAL-ak...) baina Udalaren kapitalaz ere bai.

*"Herri mailako politika ekonomiko bat behar dugula uste dut, hainbat gauza baitago ez merkatuak ezta urrutiko instituzioek herri bakoitzarengatik egingo ez dutena"*

Izan ere, Udalek azpiegiturak sustatzen jardun behar dute soilik? Zergatik enpresa kooperatiboak sortzeko inbertsioak ez dira haintzat hartzen?

Eta horrela hamaika ekinbide, hala nola, herriko kapital finkoa handitzeko politikak eta berorri errentabilitatea ateratzeko ekimenak, herriko enpresen merkaturatze prozesuetan lagungarri izan, gizarte ekonomian oinarritutako enpresak sortzeko inbertsioak, hezkuntza prozesua amaitu eta ondorengo urteetan gazteen ekimenei laguntza.... Laguntzak kapitaltzat ulertuta, hau da, etekinak atera behar zaizkion inbertsiotzat hartuta, etekin horiek berriro inbertitu ahal izateko.

Hau gauza bitxitzat joko du norbaitek. Baina aurrean dut Europa eta Ameriketako 94 herrik politika ekonomikoan hartu dituzten neurrien zerrenda xume bat. Benetan erakargarria.

Azkenean, herri mailako politika ekonomiko bat behar dugula uste dut, hainbat gauza baitago ez merkatuak ezta urrutiko instituzioek herri bakoitzarengatik egingo ez dutena <

**barruan**



**Eukene Gracia**

Preso ohia

***"Oso pozik nago familiarekin nagoelako eta aspalditik ikusi gabeko lagunekin"***

8.



**Paco Santiago**

Bergarako jokalaria

***"Realean eman ditudan urteetan batez ere zelaian sufritzen ikasi dut"***

22.



**Aritz Gallastegi**

Xipizaroko begiralea

***"Neguan eskiatzia gustatzen jat, frontoia be bai, eta, zela ez, neskiakin egotia "***

33.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

gazte informazioa

**IKASTAROAK**
**Nekazaritza.** Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna. Langabetuentzat. Irailetik aurrera Gasteiz, Tolosa eta Iruñean burutuko den ikastaroa.
**Musika eramangarria.** Arteleku. Musika digitala era birtualean prozesatzeko behar diren tresnak ezagutzera emateko lantegia. Epea: uztailak 28.
**Informatika grafikoa.** Arteleku. Kontzeptu grafikoa garatzeko prozesua eta egiteko aukerak aztertuko dituen lantegia, tresna informatikoa erabiliz. Epea: uztailak 28.

**SARIAK**
**Etorkizuneko Musikarien Saria.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Musika arloko gazte birtuosoak ezagutaraztea eta beren ikasketak bultzatzea helburu duen saria. Epea: abuztuak 31.

**LAN ESKAINTZAK**
**11 albaitari plaza.** Nekazaritza, arrantza eta elikadura ministerioa. Albaitari tituloa. Epea: uztailak 24.
**7 Ingeiniari tekniko.** Sustapen ministerioa. Inginieritza Teknikoko edo Perito tituloa. Epea: uztailak 26.
**Zerbitzu anitzak.** Irurtzungo Udala (Nafarroa). Eskola Graduatua, LH 2 edo baliokidea; B-1 gidatzeko baimena. Epea: abuztuak 6.
**Administrari laguntzailea.** Castejoneko Udala (Nafarroa). Eskola Graduatua, LH1 edo baliokidea. Epea: abuztuak 6.
**Administrari laguntzailea.** Mendabiako Udala (Nafarroa). Eskola Graduatua, LH1 edo baliokidea. Epea: abuztuak 4.

**BESTELAKOAK**
**Alojamendu, Udarako Ekintza eta Turismo Informazioa.** Euskal Herrikoa, beste erkidegoetakoa eta atzerrikoa.
**Musikagida.** Bergarako musika talde bateko partaide bazara eta interneten dagoen MUSIKA-GIDAn agertu nahi izatekotan, jarri zaitezte gurekin kontaktuan.

**KARNETAK**
Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-posta: gzerbitzua@euskalnet.net
Ordutegia uztailaren 6tik irailaren 2ra:
Eguena: 09:00-23:00 eta 16:00-20:00
Eguakitza: 09:00-13:00
Abuztuko 2., 3. eta 4. astean, itxita

**OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.**

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Kemoltzo**

Ke-mordoa,
ke-piloa.

*-Etxe bat*
*erretzen egon*
*bia dau,*
*kemoltzo*
*galantak*
*ikusten die ta.*



JOSU OKINA

## Tenperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

| | Elosu | | | San Juan | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
| **Eguena 13** | 15 | 9 | *1,3* | 20 | 10 | *0,9* |
| **Eguakitza 14** | 13,5 | 10,5 | *11,8* | 19 | 14 | *9,1* |
| **Zapatua 15** | 14 | 12,5 | *11,6* | 19 | 16 | *7,1* |
| **Domeka 16** | 14 | 11,5 | - | 24 | 15 | - |
| **Astelehena 17** | 20 | 12,5 | - | 26 | 10 | - |
| **Martitzena 18** | 22 | 14 | - | 28 | 15 | - |
| **Eguaztena 19** | 20,5 | 13 | - | 29 | 12 | - |

## Farmaziak

**Eguakitza 21:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Zapatua 22:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Domeka 23:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Astelehena 24:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Martitzena 25:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Eguaztena 26:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Eguena 27:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

## Ogia

**Domeka 23:** Ogizun.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

## zorion agurrak



**Irantzu Bolaños**
Uztailaren 25ean 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



**Eztizen Bolaños**
Uztailaren 27an 16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Eneko Larrañaga**
Uztailaren 27an 2 urte. Urte askotarako! Andres eta Mari Karmen.



**Amaia Garitano**
Uztailaren 28an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Aitor.



**Aritz Olaso**
Abuztuaren 19an 22 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Arantza Garitano**
Abuztuaren 5ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mikel Kortabarria**
Uztailaren 24an 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak, Elisa, Julen eta Gorka.



**Nekane Varela**
Uztailaren 21ean 9 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Argiñe.



**Malen**
Uztailaren 22an urtebete. Urte askotarako! Asier eta beste guztiak.



**Iñigo Gallastegi "Poti"**
Uztailaren 29an 28. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



**Olatz Ezkurra**
Abuztuaren 1ean 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Leire Aperribai**
Abenduaren 20an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

# Bergarako
# OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXEA, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

*Osasunez bizi izateko!*

# zintzarria

munduko musiken Xareta 1go jaialdia

## zugarramurdi. uztailak 29, 30

ANTOLATZAILEA:

Egunkaria 10 urte

hijas del sol
luar na lubre
septeto santiaguero
oskorri
alaitz eta maider
erdi aroko azoka...



**larunbata 29**

20:00 jabier muguruza
20:30 faltriqueira.GA
21:10 etzakit
22:20 hijas del sol.ginea
23:30 oskorri
00:40 luar na lubre.GA
01:50 xuia reggae band

**igandea 30**

20:00 maddi oihenart
20:30 pier paul berzaitz
21:10 john whelan.UK
22:20 septeto santiaguero.kuba
23:30 eric rigler&bad haggis.eeuu
00:40 alaitz eta maider

www.zintzarria.com

*sarrerak jadanik salgai (2.500 pta)*

CLUBES CANeko bezeroentzat sarrera: 2.200 pzta.

- urretxindorra (bilbo)
- bilintx - frudisk (donostia)
- arriaga (gasteiz)
- bertso hop (irun)
- xalbador - chaston (iruña)
- mattin (baiona)

InfoClub 901·500 500

MEGA PLAN

CUENTA JOVEN New líder

ELKARLANEAN · Xareta · etb euskal telebista · euskadirratia · euskadigaztea

# Pilota eskolan 60 bat gaztetxo ibili dira aurtengo denboraldian

## Helburua, gaztetxoen artean pilotarako zaletasuna piztea

**Bergara Kirol Elkarteko pilota sailak antolatutako pilota eskolan 6 urtetik 14 urtera bitarteko 60 bat gaztetxo izan dira aurten. Entrenatzaile lanetan Reyes Azkoitia, Iker Zabaleta eta Edu Samaniego ibili dira.**

Hamar urtetik beherakoak (30 bat lagun) Reyes Azkoitiarekin entrenatu dira eguakitzero, eta 10 urtetik 14 urtera bitartekoek astelehen, martitzen eta eguenero izan dituzte entrenamendu saioak Udal Pilotalekuan, Ikerren eta Eduren aginduetara. Federatutako pilotarien entrenamenduak, berriz, eguaztenero izan dira.

Pilota eskola urritik ekainera bitartean izan da martxan, eta, Reyesen arabera, "helburu nagusia gaztetxoen artean pilotarako zaletasuna piztea da, eta, aldi berean, kategoria bakoitzean hutsunerik ez egotea pilotarien kopuruari dagokionez. Pilota eskola orain dela urte asko jarri zen martxan eta aurten lortutako emaitzekin oso pozik gaude, gaztetxoek interes handia azaldu dutelako entrenamenduetara etortzeko orduan eta denboraldia aurrera joan ahala pilota eskolan parte hartzeko prest zegoen jende gehiago etorri zaigulako".



Argazkian pilota eskolan aritutako gaztetxo talde bat.



Gaztetxoek urritik ekainera bitartean astero izan dituzte entrenamenduak.

Alebin eta infantil mailako pilotariek eskola kiroleko txapelketan parte hartzeko aukera izan dute denboraldian zehar, eta, benjaminen kasuan, pilota topaketak egin izan dira, urtarriletik Aste Santura Eskoriatzan, eta, maiatzean eta ekainean, Oñatin.

Reyesek azaldu digunez, "entrenamenduen oinarria pilotarekin jokatzea izan da, barruka jokatuz eta partiduak eginez. Monitore aldetik justu samar ibili arren, aurten ere esperientzia polita izan da eta datorren urtean, urri aldera-edo, pilota eskolarekin jarraitzeko asmoa daukagu".

## Saturraran-Deba trabesia arrakastatsua

**Beti-Busti** taldeak joan zen uztailaren 9an antolatutako Saturraran-Deba trabesian 57 lagun izan ziren lehian eta guztiek lortu zuten proba amaitzea. Santiagotarrak taldeko Paco Prieto izan zen irabazlea, 33 minutuko denborarekin. Bergarar onena Alex Zangitu izan genuen. Trabesia amaitu ondoren, kaiak-surfeko erakustaldia egin zen Debako hondartzan, eta, jarraian, bildutako guztiek luntxa izan zuten. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie probaren antolaketan laguntza eman zuten guztiei.



# Bergarako futbol taldea martxan

**Bergarako** hirugarren mailako futbol taldeak joan zen astean ekin zien aurredenboraldiko entrenamendu saioei. Juanina Garai entrenatzaile arrasatearraren agindutara, gaur, eguakitza, opor aurreko azken entrenamendua izango dute mahoneroek. Datorren abuztuaren 14an lanera itzuliko da taldea, hurrengo denboraldia gertatzeko asmoz. Momentuz 25 lagun ari dira lehen taldearekin entrenatzen. Entrenatzaile berriaren asmoa 20 laguneko plantila osatzea da. Deskartatutako jokalariek 2. erregionaleko taldearekin jokatuko dute ziurrenik. Jubenil taldetik hiru jokalari igo dira talde nagusira. Bestalde, nobedade nagusiak Koldo Erostarbe elgetarra, Igor Errasti golegile eibartarra, Arkaitz Ganzarain atezain arrasatearra, Arrasaten ibilitako Unai Uribesalgo, Unai Rollan eta Oier Loiola bergararrak, eta azken denboraldian Realeko jubeniletan izan den Paco Santiago bergararra dira. Gotzon Urtzelaik eta Iñaki Mujikak, berriz, Aloña Mendirekin jokatuko dute. Hala ere, "Piti" Unamuno presidentearen arabera, "Iñakiren kasuan abenduan (entrenatzaileak egoki ikusten badu) edo datorren urteko ekainean berreskuratzeko aukera izatea lortu nahi dugu eta horretarako Aloñaren zuzendaritzarekin hitzegingo dugu".



Argazkian, Juanina Garai bere jokalariekin eguazteneko entrenamenduan.

Juanina Garai ilusionatuta dago datorren denboraldiari begira: "taldeak iaz kategoriari eustea lortu zuen eta hori izango da gure helburu nagusia irailetik aurrera, kategoria benetan zaila delako ". Liga hasi aurretik lagunarteko hiruzpalau partidu jokatuko ditu Bergarak.

**BERGARAKO TXAPELKETA**

Villa de Bergara futbol txapelketa abuztuaren 24an, 25ean eta 26an jokatuko da. Abuztuaren 24an Bergara eta Urola izango dira aurrez aurre eta hilaren 25ean UDAk Aloñaren kontra jokatuko du. Irabazleek abuztuaren 26an jokatuko dute finala. Liga hasiera, berriz, hurrengo astebukaeran, irailaren 3an, izango da.

## *PACO SANTIAGO/ Bergarako jokalaria*

## *"Realean batez ere zelaian sufritzen ikasi dut"*

**Azken bost denboraldiak Realean eman ondoren, Paco Santiagok (19 urte) Bergarako hirugarren mailako futbol taldearekin jokatuko du datorren denboraldian. Azken denboraldian 14 gol egin ditu Realeko jubenilekin.**

**G.** Etsipen handia eragin dizu Sansera ez igotzeak?

**E.** Handia ez. Aurten jubeniletan azken urtea nuen eta banekien oso zaila zela Realeko bigarren taldera igotzea, konpetentzia handia dagoelako. Roberto Olabe entrenatzaileak denboraldian zehar lan ona egin dudala komentatu zidan, baina antzematen nuen ez nuela jarraituko. Bergarako zuzendaritzakoekin berba eginda nengoen kasu horretan hona etortzeko.

**G.** Zela baloratzen dituzu Realean emandako urteak?

**E.** Oso urte onak izan dira; gustora ibili naiz, lagun onak egin ditut eta asko ikasi dut, batez ere zelaian sufritzen. Kadeteetan, lehenbiziko bi urteetan, gol asko egin nituen, 45 denboraldi bakoitzeko, baina jubeniletako hiru urteetan ez naiz horren fin ibili.

**G.** Zelako denboraldia izan da aurtengoa?

**E.** Ohorezko jubenil ligan hirugarren postuan sailkatu gara, Zaragoza eta Athletic taldeen atzetik. Kopan, berriz, ez genuen zorterik izan eta Racing-ek lehenbiziko kanporaketan eliminatu gintuen.

**G.** Realean behar beste zaintzen da harrobia?

**E.** Bai, jokalari onak ateratzen dira, eta Clementerekin Gurrutxagak, Llorentek edo Xabi Alonsok aukerak izan dituzte. Dena den, gero eta atzerritar gehiago fitxatzen ari dira eta horrek ateak ixten dizkie gazteei.

**G.** Non jokatzea gustatzen zaizu?

**E.** Bandan jokatzea gustatzen zait gehien, hegaletatik hobeto heltzen naizelako.

**G.** Zela definituko zenuke zure burua?

**E.** Borrokalaria naizela uste dut, baloi guztietara joaten naiz eta.

**G.** Zer moduzko denboraldia egin dezake Bergarak irailetik aurrera?

**E.** Ikusi egin behar. Aldaketa asko izango dira, entrenatzailea ere berria da... Baina talde ona osatu dezakegu eta ea arazorik ez daukagun mailari eusteko.



# Uda Kirol Kanpainari amaiera emango zaio gaur

**Gaur, eguakitza**, amaitzekoa zen Kirol Zerbitzuak aurten martxan jarritako Uda Kanpainaren bigarren txanda. Lehen txandan 267 partaide izan ziren antolatutako kirol jardueretan. Aurreko edizioetan bezala, herritarrek igeriketa, tenisa, defentsa pertsonala, pilota jolasak, aerobika, piraguismoa edo patinaia egiteko aukera izan dute. Bigarren txandan 229 lagun izan dira.

Igeriketa, aerobika eta tenisa izan dira partaide gehien jaso dituzten jarduerak. Iñaki Ugarteburu kirol teknikariaren arabera, "partaidetzarekin pozik gaude, ia 500 lagun inguruk hartu dutelako parte. Hainbat kirolek ez dute esperotako erantzuna jaso; beste batzurekin sorpresa atsegina hartu dugu. Defentsa pertsonaleko ikastaroan, adibidez, 12 emakume izan dira".



Uda Kanpainan antolatutako tenis ikastaroetan 40 lagun izan dira.

# Kirol sarien banaketa



Argazkian, saritutako kirolariak udal ordezkariekin.

**Joan zen eguaztenean** Kirol Zerbitzuak eta Berrigarak urtero ematen dituzten kirol sariak banatu ziren Kultura Etxean. Aurtengo deialdian 12 kirol taldek hartu zuten parte. Sail bakoitzeko kirolari onenak plaka oroigarria jaso zuen. Bestalde, Alicia De Cesar entrenatzaile naparra saritu zuten gimnasia erritmikoaren alde herrian egindako lan bikainagatik. Kirol talde onenari zegokion saria Beti-Busti piraguismo taldeak eraman du aurten.

## Igerilekuetako gimnasioa

**Udal** igerilekuetako gimnasioan kardiobaskular entrenamendurako hiru makina berri jarri dira; antxitxika egiteko zinta bat, etzanda egoteko bizikleta eta eskilarak igotzeko makina. Halaber, aholkularitza fisikorako zerbitzuak martxan jarraitzen du. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

## Tenis pistaren erreserbak

**Labegaraietako** Kiroldegiko tenis pista erreserbatzeko eskaerak Kirol Zerbitzuan edo Kiroldegian bertan egin daitezke. Informazio gehiago: 943 77 91 67.

## Ur jolasak igerilekuetan

**Uztailaren** 26, 27 eta 28rako Udal Kirol Zerbitzuak ur jolasak antolatuko ditu, kanpoko igerilekuan. Goizeko 10etatik eguerdiko ordubatera izango dira, herritar guztientzat irekiak, eta sarrera dohainik izango da bazkideentzat. Bazkideak ez direnek, aldiz, sarrera normala ordaindu beharko dute.

Artisautzako izozkia
GOXO-TOKI
Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

# IPINTZAKO futbol txapelketa







**ZUTAZ PENTSATZEN TXAPELDUN**

Seniorren finalean Zutaz pentsatzen taldeak azken minutuetan lortu zuen garaipena, Potzu ta zapaburuak taldeari 2-1eko emaitzarekin irabaziz. Saioa Bolibarrek egindako gol bati esker Zutaz pentsatzen-ekoak aurreratu ziren markagailuan, baina Potzu ta zapaburuak taldeak berdinketa lortu zuen, Zutaz-eko defentsak bere atean gola egin eta gero. Partidua amaitzear zegoela, Uxue Lazkanok partidua erabaki zuen bere taldearen alde. BERRIGARAK golegile onenari emandako saria Rachael Olabarriak eraman zuen.

**ANTZUOLA NAGUSI KADETEETAN**

Antzuolak 1-0ko emaitzarekin irabazi zion Eka taldeari eguakitzean izan zen kadete mailako nesken finalean. Antzuolarrak, ligan zehar, onenak izan dira, eta finalean ere beren nagusitasuna azaldu zuten. Hala ere, uste baino arazo gehiago izan zituzten garaipena eskuratzeko. Ligan 3-1eko emaitzarekin nagusitu zitzaien bergararrei baina finala oso borrokatua izan zen. Azkenean, Esther Reinosok lortutako golari esker Antzuolak irabazi zuen. Bestalde, Lexeia Larrañagak golegile onenaren saria eskuratu zuen.



**ARLOTEAK-DOWN FINALA GAUR**

Arloteak (argazkian) eta Down taldeek nagusien mailako gizonezkoen finala jokatu dute gaur, eguakitza, 19:30etik aurrera. Arloteak-ek 2-0 irabazi zion Osintxuri, Pedro Zafrak eta Joseba Larrañagak sartutako golekin. Bestalde, Downek Mongatxurrak taldea 3-1 menderatu zuen. Javi Fernandezek, Gorka Aiestaranek eta Paco Santiagok egin zituzten Down-ekoen golak eta Ibon Agirrek Mongatxurrakekoa.

***azken emaitzak***

| | |
|---|---|
| NAGUSIAK | |
| Arloteak-Osintxu | **2-0** |
| Mongatxurrak-Down | **1-3** |
| NESKAK | |
| Eka-Antzuola | **0-1** |
| Zutaz pentsatzen-Potzu ta zapaburuak | **2-1** |

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA


OGIZUN
koop. elk.
okindegia
San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49
Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19



Ainhoa Eguren eta Karmentxu Larrañaga, bulego arduraduna, Bergarako Eroski Bidaiek-en sukurtsalean.

# Zozketan irabazle

Euskal Telebistako Barrebusa saioan
Ainhoa Eguren Lazkano, 9 urtekoa, izan da
EROSKI BIDAIAKek egindako zozketaren irabazle.
Zorionak Ainhoa!
Saria: Ainhoa eta bere familia osoarendako
astebukaera Eurodisneyn



# Eta eskaintzarik onenak...

**Lisboa** Iberiarekin tarifa berezia: 12.000 pta + tasak (joan etorria)

**Londres** Eskaintza berezia, British Airways-ekin: 25.000 pta + tasak (joan etorria)

**BALI**
Uztaila
8 egun, 5 gau
Hegaldia, A mailako hotela, dena barne
*Pertsonako*
*135.100 pta*

**BENIDORM**
Uztaila
Astebete
Hotela**
Pentsio osoa
*Pertsonako*
*31.500 pta*

**MALDIVAS**
Uztaila
10 egun, 7 gau
Hegaldia, hotela***handi, dena barne
*Pertsonako*
*176.750 pta*

**MALLORCA**
Uztaila
8 egun, 7 gau
Hegaldia, hotela***, pentsio erdia
*Pertsonako*
*45.500 pta*

**ALMERIA**
Irailaren 16tik 23ra
Topacio Hotela***
Pentsio erdia
*Pertsonako*
*29.000 pta*

**GALIZIA**
Abuztuaren 5etik 12ra
Caneliñas Hotela**
Gosaria barne
*Pertsonako*
*29.000 pta*

**COSTA DEL SOL**
Abuztuaren 12tik 19ra
Hainbat apartamentu
4 lagunendako
*Pertsonako*
*29.000 pta*

Euskal Herriko 1. Agentzia

**VIAJES EROSKI**
**BIDAIAK**

▶ Prezio Onak baino gehiago

**IRIZAR I**
943 76 26 76
Faxa 943 76 71 13

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **ALAI GARAJEA PEUGEOT.** Urarte,12 **Bergara** Tel.: 943 76 22 96 | | | | |
| Renault 19 1.9 Diesel 5 ate | | 1995 | | *4 |
| Peugeot 405 1.9 GR | | 1989 | AG | *2 |
| Peugeot 406 TD | | 1999 | AG | *7 |
| Peugeot 306 1.9 Diesel | | 1999 | AG | *6 |
| Peugeot 306 1.6 Diesel | | 2000 | Kilometro zero | *6 |
| Peugeot 206 XR 1.4 5 ate | | 1999 | | *5 |
| **AUTOLEYMA.** Aitziturri 5. **Bergara.** Tel.: 943 76 09 30 | | | | |
| Peugeot 406 SR HDI | | | AG, ABS, 4 AIRBAG | *7 |
| Peugeot 306 Diesel | | | AG, 2 AIRBAG | *6 |
| Peugeot 206 XR 1.4 | | | | *5 |
| Peugeot 306 Sedan Style Diesel | | | | *5 |
| Peugeot 306 Break Diesel | | | AG, ABS, 2 AIRBAG | *6 |
| **BERRIA GARAJEA.** Amillaga 49 **Bergara** Tel.: 943 76 22 43 | | | | |
| Honda Concerto 1.5i 16 v | BI-CG | 1994 | A-AG-AH-IE-IK-IZ-KE-LD-LK | *3 |
| Seat Toledo Sport 1.8 16 v | SS-AL | 1991 | AG-AH-IE-IK-IZ-KE-LD-LK-ABS | *3 |
| Fiat Tipo 1.6 AGT | SS-AK | 1991 | IK-IZ-KE-LK | *2 |
| Ford Fiesta 1.1 3 ate | SS-AN | 1992 | | *2 |
| Ford Mondeo RS V6 | SS-BG | 1999 | A-AH-IE-IK-IZ-KE-KL-LD-LK-LKA-ABS | *7 |
| Peugeot 309 GTX | SS-AK | 1991 | IK-IZ-KE-LD-LK | *3 |


**GARAJE MURILLO**
Mekanika orokorra
Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84
IVECO


**SAN MARTIN**
**KARROZERIAK**
Autoaren konponketa orokorrean
San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekanbioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

Dena AUTO
Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97


**AUTO DESGUACES BERGARA**
Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)
*BIGARREN ESKUKO PIEZAK*
*PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK*
*GRUA ZERBITZUA*

PEÑAKOBA
Zarugalde, 46
Tel./Faxa: 943 79 29 93
ARRASATE
Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 943 78 05 60
OÑATI

| MARKA ETA MODELOA | MATRIK. | URTEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **CHAPIME TAILERRAK.** Araba Etorbidea 5 **Arrasate** Tel.: 943 79 45 22 | | | | |
| Lancia Delta 1.6 | SS-AJ | 1990 | EXTRAK | *1 |
| Citroen ZX 2.0I Volcane | SS-AN | 1993 | EXTRAK | *3 |
| Opel Vectra 1.7D GL | BI-BL | 1992 | EXTRAK | *4 |
| Fiat Uno 70 SX i.e. | SS-AJ | 1990 | EXTRAK | *2 |
| Opel Astra 1.7 TD GL | SS-AT | 1994 | EXTRAK | *4 |
| Seat Marbella 1.0 | BI-BG | 1991 | | *1 |
| Alfa Romeo 133 | SS-AM | 1991 | EXTRAK | *1 |
| VW Polo 1.3 | SS-AJ | 1990 | | *1 |
| Renault 19 TXI 1.8 | SS-AK | 1991 | EXTRAK | *2 |
| Renault Express Gasolina | BI-BK | 1991 | | *2 |
| Fiat Tipo 1.4 AGT | SS-AJ | 1990 | EXTRAK | *1 |
| Renault 19 19TD | SS-AV | 1995 | EXTRAK | *4 |
| Seat Ibiza 1.4 3 ate | SS-BD | 1998 | EXTRAK | *5 |
| **FIAT KANPAZAR C.B.** Bizkaia Etorbidea, z/g **Arrasate** Tel.: 943 79 41 98 | | | | |
| Fiat Punto 1.2. ELX | | 2000 | | *5 |
| Renault Megane TD | SS-AX | 1996 | | *5 |
| Peugeot 205 | VI-J | 1988 | | *1 |
| Fiat Punto 55 | | 1999 | | *5 |
| **MECA.** San Andres, 8 **Arrasate** Tel.: 943 71 21 67 | | | | |
| Megane Alizé 1.6 | B-TX | 1998 | | 1.250.000 |
| Peugeot 205 3ate 1.1 Style | SS-AL | 1991 | | 300.000 |
| Golf 1.6 TD 5 ate | SS-AP | 1993 | | 750.000 |
| AX 1.4 TRD | BI-AY | 1989 | | 250.000 |
| Clio S 1.7 3 ate | SS-AN | 1992 | | 450.000 |
| **REPARACIONES LENIZ, C.B.** Aingeru Ibiltokia, 31 **Eskoriatza** Tel.: 943 71 50 61 | | | | |
| Rover 214 SI | SS-AN | 1991 | | |

**A:** Aleroia **AG:** Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagunak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **ES:** Eguzki Sapaia
**IE:** Ispilu elektrikoak **HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Laguduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa **UAT:** Urrutiko aginte tresna

***1:** 300.000 PTAra arte
***2:** 300.000-500.000 PTA
***3:** 500.000-750.000 PTA
***4:** 750.000-1.000.000 PTA
***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA
***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA
***7:** 2.000.000-3.000.000 PTA
***8:** 3.000.000 PTAtik aurrera

AGUSTIN
Automobilaren karburazio eta elektronika
Airtel
Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

Larringan
GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA
Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE
Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

Dena AUTO
Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Zubieta. 646 516 192.

Pisua garajearekin, Aranerrekan. 943 76 07 77.

Iraburun (Bolu), 87 m². Deitu 943 76 08 47 telefonora.

Apartamentu txikia Barrenkalean. Jantzia. 656 740 165 (Mikel).

### ERRENTAN EMATEKO

Abuztuko lehen hamabostaldian apartamentua alokairuan Alcoceberren. 943 76 12 14.

Gasteiz. Pisu txikia alokairuan. Bi lagunendako. Unibertsitate ondoan. 619 522 971 (gauez).

Estudioa Benidormen, abuztuko 2. hamabostaldirako. 619 522 971.

Apartamentua alokairuan Benidormen. Levante hondartzan, lehen ilaran. 943 74 38 27 / 20 31.

Apartamentua Saloun, uztailean eta irailean. Deitu 943 79 88 50 telefonora.

### ERRENTAN HARTZEKO

Etxea alokatuko nuke. Jantzia. 90.000 pta. arte ordaintzeko gertu nago. Presazkoa da. 649 790 901.

Etxea alokatu edo erosiko genuke Bergaran edo Antzuolan. 943 76 39 16.

Etxea alokatu edo erosiko nuke Bergaran edo inguruan. 94 446 43 84 / 659 506 679.

Pisua alokairuan hartuko genuke San Antonio-Labegaraieta inguruan. Deitu 943 76 18 73 telefonora.

Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Bergaran edo inguruan. 646 975 367.

### ETXE KONPARTITUAK

Mutila naiz eta pisua konpartituko nuke. 606 758 366.

Iruñean, NUP ondoan, pisua osatzeko bi mutil nahi nituzke. 943 76 33 88.

Donostiako erdialdean pisu handia konpartituko nuke urte osoan. 670 087 427 (Ainhoa).

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Garajea salgai Burdiñaten. Deitu 943 76 43 75 telefonora.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 00 93.

Matxiategi. 943 76 23 12.

Bolu. 2.000.000 pta. 943 76 47 99 (gauez).

### ERRENTAN EMATEKO

Santa Marina. Deitu 943 76 37 69 telefonora.

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

### ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal komertziala hartuko nuke alokairuan, 40-60 m²koa. 646 673 204.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

## 3. LOKALAK

### EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m² . 607 82 53 06.

### ERRENTAN EMATEKO

Koldo Eleizalden, behea, 50 m2. 943 76 37 69.

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Neskak, goizez umeak zainduko lituzke. 636 438 832.

Neskak garbiketa lanak egingo lituzke jatetxe batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke uztailetik irailera bitartean. 943 76 39 91.

Neska umeekin lan egiteko gertu. Esperientzia. 943 76 53 71.

Neska lanerako gertu udan. 943 76 00 24.

Neska gaztea, garbiketa lanak, umeak zaindu




Ur~bide
ITURGINTZA
Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

MB
MECANIZADOS BERGARA, S.L.
Dekoletaia bidezko pieza berezien eta torlojuen fabrikazioa. Biak plano bidez edo laginen bidez eginak, altzairu bigun, karbono askoko altzairu, erresistentzia handiko altzairu, kobre, latoi eta aluminioan.
943 76 03 44
Faxa 943 76 00 82
Amillaga 21. 194 posta kutxa
BERGARA

Korosti
INMOBILIARIA
Etxebizitza berriak Antzuola erdian
• 90 m²ko etxebizitzak, 3 logelakoak
• Leku ezin hobean
• Punta-puntako materialekin eraikiak
• 20 milioitan!
Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.

edo dendan lan egiteko gertu. 600 321 302.

**ESKAERAK**

Goizez etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. 696 225 538 (21:00-22:00).

Emakumea behar da Antzuolan etxeko lanak egiteko. 943 76 60 80.

Bi ume zaindu eta etxeko lanetarako pertsona behar da. 943 76 05 80.

Abuztuan etxea garbitzeko emakumea behar da. 943 76 56 15.

Etxeko lanak egiteko eta haurrak ikastolara eramateko neska behar da. 943 76 31 11.

Emakumea behar da umeak zaintzeko. 943 76 05 87.

Emakumea behar da edadetua zaintzeko, uztailetik urrira; zapatu eta domeketan ere bai. 943 76 35 11.

## 5. IRAKASKUNTZA

**ESKAINTZAK**

LH eta DBHko 1. ziklorako eskola partikularrak ematen ditut uztailean. 943 76 25 90.

Eskola partikularrak ematen ditut. OHO eta DBH. 943 76 39 94.

Udan eskola partikularrak ematen ditut: mate, fisika eta kimika. 943 76 59 15 (Amaia).

**ESKAERAK**

Ingeniaritzako ikasleak kimikako eskolak hartuko lituzke. Deitu 943 76 22 95 telefonora.

## 6. IBILGAILUAK

**SALDU**

Opel Corsa 1.3. 200.000 pta. 943 78 71 31.

Seat Ibiza 1.2i. 1992. 60.000 km. 400.000 pta. 943 76 50 86.

Kawasaki GPZ 500 motorra. Egoera ona. 943 76 71 21.

Opel Kadett (SS-AH). 943 76 02 88.

Aprilia RS 50 motoa. 943 76 48 47.

Trial motoa. 250 motorra. 125.000 km. 943 79 78 36.

Seat Panda oso merke. 656 743 272.

## 7. ANIMALIAK

**SALDU**

Sei hileko hyspaniel arra, 11 hileko seter ingeles emea eta urte eta erdiko pointer emea. 943 76 37 70.

Katu persak, 2 hilabetekoak. Prezio ona. 943 76 33 58 (Natalia).

Ahuntzak. 943 76 48 07 (Gorka).

Setter ingeles txakurkumeak. 943 20 31 01.

Caniche txakurkumeak. Arrak eta emeak. 943 76 57 16.

**BESTELAKOAK**

Txakurkumeak opari. 943 76 21 55.

Bi urteko katu siamesa opari, ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

## 8. DENETARIK

**SALDU**

Bizikleta estatikoa. Berria. 943 76 25 01.

Play Station: txipa, 2 aginte eta jokoak. 666 466 969.

Inesca Viena karro-denda. 943 76 43 80.

Wip-it piragua. Osagarriekin. 150.000 pta. 943 79 78 36.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa. 943 76 18 78.

San Marco bizikletako eserlekua; larrua, jela. 5.000 pta. 943 76 07 50.

Egongelako altzaria. la berria. 2,8 m. luze. 943 76 41 31.

Batzeko moduko karabana. 943 76 58 05 / 41 55.

**EROSI**

Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 76 47 67.

**AURKITU**

Nesken pultsera bat aurkitu dut Poligonoan. 943 76 21 07.

**BESTELAKOAK**

Txakurra edukitzeko txabola behar dut 607 448 531.


Langai
Euskal Lan Zerbitzua

***KOMERTZIALA*** Bilbo. 35525/1

***IGELTSEROAK 2*** Bilbo. 35759/3

***APAREJADOREA*** Bilbo. 36445/2

***LANEKO ARRISKUETARAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA*** Bilbo. 35970/2

***LANEKO ARRISKUETARAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA*** Bilbo. 35971/2

***ESTETIZISTA*** Goierri. 36112/3

***ENPRESA IKASKETETAN, EKONOMI ZIENTZIETAN edota ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA edo DIPLOMATUA*** Bilbo. 36403/3

***KOMERTZIAL IRAKASLEAK 3*** Ondarroa. 36159/2 Ondarroa. 36160/2 Ondarroa. 36161/2

***INTERNET IRAKASLEA*** Debabarrena. 36189/1

***INGENIARIA*** Bilbo. 36225/3

***ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA*** Bilbo. 36257/4

***INFORMATIKARIA*** Bilbo. 36286/1

***OPTIKARIA*** Ibai ezkerraldea. 35852/3

***KOMERTZIALA*** Bilbo. 32763/1

***SEGURTASUN ZAINDARIAK*** Donostia. 35411/4

***IGELTSEROA*** Bilbo. 35408/1

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

ZUBIAURRE
aroztegia
• Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
• Sarrerarako eta barrurako ateak.
• Neurrira egindako horma-armairuak.
• Tarima eta parketak.
• Zurezko leihoak.
• Era guztietako arotz-lanak.
Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK
AGENTEA
IRAEGI ASEGURUAK
*Ramon Maria Lili 6, behea*
*20570 BERGARA (Gipuzkoa)*
*Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54*
*Faxa: 943 76 41 54*
*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00*
*Larunbatetan: 9.00-13.00*

# Turkia eta Bergara bat folkarekin

## Estanbuleko folklore konpainiak, Xamatzek eta Orkestrak hartuko dute parte

**Folk jaialdia gaur, eguakitza, gaueko 22:30ean izango da Udal pilotalekuan. Bertan Euskal Herriko eta Turkiako kulturek emandako dantza eta musikaz gozatzeko aukera egongo da. Turkiatik Estanbuleko Konpainia Folklorikoa hurbilduko da, eta hauekin batera, Xamatz dantza taldea eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa ere arituko dira.**



Turkiako konpainiaren helburua euren musika eta dantzak Turkian zein atzerrian ezagutzera ematea da.

Estanbuleko taldea Euskal Herrian da egunotan. Izan ere, Portugaleten urtero egiten den Nazioarteko Folk Jaialdian hartuko dute parte. Hurbiltasun hori dela eta, Bergarako Udalak gonbidatu egin ditu euren dantza eta musika Bergaran erakuts dezaten.

"Istanbul Folklor Egitim Dernegi" 1986. urtean sortu zen. Turkiako folklorearen musika eta dantzak galtzen ari zirela ikusita, hainbat dantzari eta musikari gaztek sortu zuten. Ordutik, helburu bera izan du: Turkian bertan zein atzerriko herrialdeetan euren musika eta dantzak ezagutzera ematea.

Gaur gauean eskainiko duten emanaldian honako dantzak ikusi ahal izango dira, beste batzuren artean: Marmara inguruko "Silivri" eta "Kiliç-Klacan"; Itsaso Beltzeko "Artvin" eta "Trabzon"; Anatolia Ekialdeko "Van" eta Egeo Itsasoko "Afyon-Dinar".

**BERGARAKO ORDEZKARIAK**

Bergarako bi taldek ere hartuko dute parte jaialdi berean: Xamatz dantza taldeak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak, hain zuzen ere. Xamatzi dagokionez, neskek Igitai dantza, fandangoa, Arin-arina eta San Juan dantzak eskainiko dituzte. Mutilek, Banakoa eta Uztai-dantza. Elkarrekin Txerri dantza egingo dute. Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Guridiren "El caserio", "Zepür gi tartani" Turkiako doinu herrikoia eta Alfredo Gonzalez Chirlaqueren "Euskal Herria kantuz" eskainiko ditu.

# Abuztuan zinea eguenero San Martin plazan

**Abuztuko** gauei bizitasuna emateko asmoz, Udalak zine emanaldiak antolatu ditu eguen gauetarako. Uztailean, Espoloian egondako jazz kontzertuekin lotuta dago ekimen hau. Film guztiak eguenetan, gaueko 22:30ean izango dira San Martin plazan. Bertan, pantaila bat egokituko da eta ikusleendako eserlekuak.

Beraz, abuztuko hilabetean zehar, bost film ikusteko aukera egongo da, doain, gainera. Filmak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Abuztuaren 3an "Asterix y Obelix" (gazteleraz) eskainiko da. Abuztuaren 10ean "Errebelde baten egunkaria" (euskaraz); abuztuaren 17an "Manolito gafotas" (gazteleraz); abuztuaren 24an "Charlie & Louise" (euskaraz), eta, emanaldiekin amaitzeko, abuztuaren 31n "Todo sobre mi madre" (gazteleraz).



"Manolito Gafotas"







# Orfeoiaren 75 urteetako historia liburu batean bilduko da

**Orfeoiak** bere 75 urteetako historia biltzen duen liburua kaleratuko du. Gabonetan salgai egon daiteke, nahiz eta oraindik amaitu gabe dagoen. Liburuaren mamiaz Orfeoiko lan talde bat arduratzen da, eta bi atal nagusi izango dituela aurreratu digute: alde batetik, hitzaurrea; beste aldetik, Orfeoiaren historia urteka banatuta album tankeran. Bigarren atal horretan, Orfeoiaren historia urtez-urte jasoko da, eta batez ere argazki, egunkarietako zatiak eta kontzertuetako programez egongo da osatuta. Bestalde, azken kapitulo gisa, 75. urteurreneko argazki sorta izango du liburuak.


Orfeoia 60ko hamarkadan; Miguel Glez. Bastida organoan. B.U.A.

Gabonetan kaleratuko den arren, asmoa, urteurreneko ekitaldi sorta barruan sartzea zen. Hala ere, ezin izan zuten gauzatu. Bestalde, ekitaldien barruan antolatutako erakusketa, maiatzaren 19tik 30era bitartean Pleno Aretoan egindako erakusketa, liburua prestatzeko aurrepausoa izan zen. Liburuaren arduradunek esandakoaren arabera, "Orfeoiak duen material guztia kronologikoki paneletan jarri genuen erakusketan, eta, honek, liburua antolatzen lagundu zigun. Izan ere, erakusketa egitea, liburuari forma ematen hasteko izan zen".

Liburua osatzeko hiru iturritara jo du lan taldeak: batetik, Donato Gallastegi Zabaletaren "Bergarako kronikak" liburura; bestetik, Orfeoiaren beraren materiala erabili dute, hau da, egunkari errekorteak, aurrekontuak, kontzertuen programak, Orfeoikideen argazkiak...; eta azkenik, Udal Agiritegira. Bertan lortu dituzte argazki gehienak.

# Rock kontzertuak eta zinea Gazte Lokalaren eskutik uztailean Kartzela Zaharrean

**Musika eta zine** emanaldiak antolatu ditu Gazte Lokalaren aldeko mugimenduak. Gaur, eguakitza, kontzertua izango da Kartzelan 21:00etan. Herriko zazpi taldek hartuko dute parte eta sarrera doanekoa da: Zartateko, Requiem, Los Angeles de Charlie, X-At, Supercools, Bokata de merluza eta Hijotron & The black motos. Ondoren Mansilla eta Ziarsolorekin rock&rolla.

Hilaren 26an, eguaztena, film laburren maratoia egongo da (oraindik zehaztu gabe daude) Kartzela Zaharrean 22:15etik aurrera, hau ere doainik.

## erreseinak




Pantxo Hirigaray
***Lamindegiko lamiak***
Antzerkia

Donostia Hiriko Kutxa Literatur Sariketan 2000 urteko Antzerki saria jaso du Pantxo Hirigaray baigorriarraren "Lamindegiko lamiak" antzezlanak: Iparraldeko azken euskaldunak Iratiko bere txaletera gonbidatuko ditu Maixan Lumaeder idazleak euskaltasunaren inguruko kezkez hitzegiteko. Elur-ekaitza batengatik, ezingo dute bertatik atera, eta "lamindegiko lamiak" leiendaren haritik, erahilketak hasiko dira. Zakarias Putxapal detektibeak hor du lana.

*- Kutxa Fundazioa. 95 orr. 600 pta.*




Morau
***Amodio domestikoa***
Kantautorea

Morau izan zen, 1996. urtean Gaztelupeko hotsak disketxeak kaleratu zuen lehenengo kantautorea. Lau urte pasatu dira ordutik, eta Amodio domestikoa azken lana argitaratu berri du disketxe berean.Erregistro ugari dituen lana da. Rockabilly doinuak daude, punk doinuak, country-rocka, eta, noski, kantautore batean falta ezin diren kanta intimistak ere bai. Taldearen oinarria, Morau bera, Beñardo Goienetxe gitarra eta Josu Gabellanes bateria dira. Etorkizuneko soinuak eta tradizionalak ere ageri dira Amodio domestikoa diskoan: hip-hopa eta Mendaroko kopla zaharrak kantatzera ere ausartu da Morau.

*- Gaztelupeko Hotsak. 2.000 pta.*

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

## denborapasa

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

LUMA

### Ezker eskuma

1. Ikuskizuna. 2. Garaitzearen ondorioak. 3. Arnas ezak hil. Luze-laburra. 4. Neona. Kolore-mota. Rubidioa. 5. Arrantza-tresna. Behi-zaindaria. 6. Mea. Norat atzizkia. 7. Ataurre. Badauka. 8. Litioa. Uranioa. Baneuka. 9. Pl., agiri-mota. Akats fisiko. 10. Burua babesteko gailua. Portu.

### Goitik behera

1. Ahaleginak. 2. Zientzia jakin bat. 3. Garai. Oinarrizko edaria. Euskal fonema. 4. Sodioa. Oihuak. 5. Pisu-neurria. Bi. Errepikatuz, fruitu tropikala. 6. Zuhaixka -mota. Boroa. Bokala. 7. Behiaren ar. Zenbaki bakoiti. 8. Momentu. Pl., fruitu-mota. 9. Narriatzearen ondorioa. 10. Hil. Interjekzioa.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

1. Emankizuna. 2. Garaipenak. 3. Ito. Luzera. 4. Ne. More. Rb. 5. Amua. Unaia. 6. Harria. Rat. 7. Atari. Badu. 8. Li. U. Banu. 9. Aktak. Tara. 10. Kaskoa. Kai.

*Goitik behera*

1. Eginahalak. 2. Matematika. 3. Aro. Ura. Ts. 4. Na. Marruak. 5. Kilo. Il. Ko. 6. Ipurua. B. A. 7. Zezen. Bat. 8. Une. Aranak. 9. Narriadura. 10. Akabatu. Ai.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Zein da 1976ko uztailaren 24an sortu zuten elkarte honen izena?***

Super BM

IFA

***Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAk asmatzaileon artean!*

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein argazkilarirenak dira Kultura Etxean ikusgai diren lanak?
A- Kote Cabezudorenak
B- Josemari Aleman Amondarainenak
C- Sebastiao Salgadorenak

2. Jubenil mailako zein taldetan ibili da Paco Santiago futbolaria aurten?
A- Eibar
B- Bergara
C- Reala

3. Noiz jarriko da salgai Bergarako Orfeoiaren liburua?
A- Udan
B- Gabonetan
C- San Martin egunean



Aurreko aleko saria, **Karmen Goenaga**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Karmeni!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Barrenkalea**
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** *1:* *2:* *3:*

Izen-deiturak: Telefonoa:

*Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

San Miguel
garagardo-potea, 33cl
59 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

**Aritzek 20 urte dauzka eta Eibarren Ingenieritza Teknikoa ikasten dihardu. Xipizarok urtero antolatzen dittuan udaleku irekietako begiraletako bat dogu. Aurten du bere lehenengo aldia, eta bere arrebak animatuta apuntatu zan.**

# *Aritz Gallastegi*



**Umezale amorratua izango zara, ezta?**
Bueno, amorratu-amorratua...Baina umeren bat ikusten doten bakoitzian hurbiltzen naiz berarengana.
**Zenbat ume eduki dittuzu zure kargura egun hauetan?**
Bi begiralen artian hogei umeren kargu egin gara.
**Neskatillak ala mutikuak gaiztuenak?**
Gure taldian behintzat mutikuak.
**Etorkizunian umiak edukitzeko gogua ez jatzu jun?**
Eeez!
**Pazientzia haundiko mutilla zara?**
Segun zertarako. Umiekin bai.
**Zeu zelakua ziñan umetan?**
Hori nik ezin dotsut erantzun; igual nere amari galdetu bihar.
**Udalekutara juaten ziñan?**
Ez, sekula ez naiz egon; gurasuekin juan izan naiz beti oporretara.
**Gehixen gustatzen jatzun jolasa?**
Onena da: "egon danok ixilik!", baiña ez dau funtzionatzen.
**Eta umetan?**
Gauza arraro samarrak; adibidez, patiñetan futbolian jokatzia, diabolua...
**Uztaillian irabazittako dirutxo horrekin zer egingo dozu?**
Kotxia konpondu; bueno, kotxia konponduta daukat: orain zorrak ordainddu.
**Nora juateko asmua daukazu?**
Ezkaraira, gurasuekin.
**Aukeran, hondartza ala mendixa?**
Bixak gustatzen jat; onena bixak konpajinatzia da.
**Umiak faltan botako dittuzu, ezta?**
Ez dot uste.
**Zergaittik egon zarete hain mutil gutxi begirale moduan?**
Jende askok nesken kontua dala pentsatzen dabelako.
**Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?**
Neguan eskiatzia, frontoia be bai, eta, zela ez, neskiakin egotia.
**Maitteminduta zare, eh?**
Bai, oso!!!
**Pelotia gustatzen jatzu, orduan. Pelotari gustokuena?**
Beloki.
**Tourra zeiñek irabaziko dau?**
Armstrongek.
**Egunkarixa, irratixa ala telebista?**
Telebista, ni oso nagixa naiz.
**Galtzen ez dozun saio bat?**
"Gran hermano", erdi engantxatuta egon naiz; lehen egunero ikusten neban.
**Udarako plan bat jarriko dotsut: irla desertu batera juango zara, zer eramango ziñuke?**
Nobixia.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 SS
BERGARA
*Gozogintzan aintzindari.*

IRURAK PINTURAK S.L.
ERA GUZTIETAKO LANAK — PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA — HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA — IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
PENTSUAK Biona BANATZAILEA
*San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79*

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



# *Santamaiñatarrak, 1933*

Santa Marina eguna ospatu zen martitzenean, uztailaren 18an. Aste honetako erretratua Santa Marinarekin lotuta dago: bertan agertzen direnak "santamaiñatarrak" ditugu, Juste Amenabarrek esan digunez. Erretratua 1933.ekoa da. Gerra aurretik, herriko gazte talde batek Don Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarrak idatzitako "Izeko aberatsa" izenburuko lana antzeztu zuen Santa Marinan. Don Nemesiok berak zuzendu zuen antzezlana eta gazteek (15 bat urte izango zituzten orduan) maila bikaina erakutsi zuten. Lana Santa Marinako sakristian antzeztu zuten hainbat aldiz, domeka arratsaldeetako elizkizunaren ostean. Arrasatera joateko gonbidapena ere jaso zuen taldeak.

Euskararen alde lan egiteagatik handik urte batzutara Don Nemesio Etxaniz Euskal Herritik kanpo bidali zuten. Duela gutxi berari eskainitako omenaldi ekitaldiak izan dira. Argazkia Katabiako "Elizpe txikian" aterata dago eta honako hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Pedro (Elosuko mutila), Nieves Zabaleta, Antoni Irala, Maria Gisasola, Jesusa Irala, Luisa Berasategi, Pilar Larrañaga, Juste Amenabar eta Juanita Larrañaga.

**Jarrita:** Juanita Gisasola, Jesusa Raimon, Carmen Raimon eta Ines Gurrutxaga.

*Argazkia: Juste Amenabar*

**ADI!**
Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu.
Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

PISZINETAKO TABERNA
Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak
*Boni Laskurain z/g*
*Tf. 943 76 53 55*

Zumelaga
JATETXEA
58 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25




BILTOKI

BILTOKIk bere bezero guztiei
**OPOR ZORIONTSUAK**
opa dizkie eta, bide batez, jakinarazi nahi die
**ABUZTUAN OPORRENGATIK ITXITA**
egongo dela.

Konponketak egiteko zerbitzu ofizialen telefonoak hauek dira:

| | |
|---|---|
| **TB, bideoa eta soinua:** | 943 20 82 75 - 70 14 98 |
| **Elektragailuak:** | |
| Otsein-Candy: | 943 19 29 23 - 902 10 01 50 |
| Fagor-Aspes: | 943 79 22 34 - 79 89 97 |
| Aeg: | 943 46 01 11 |
| Corbero: | 943 45 55 64 |
| Zanussi: | 943 45 81 06 |
| Miele: | 943 21 65 13 |
| Whirpool: | 902 23 44 32 |
| Liebherr: | 944 45 55 64 - 45 36 04 |
| | 902 120 624 |

**DEKORAZIOA-ALTZARIAK**
San Martin plaza 1.
Tf. eta faxa: 943 76 43 51

**SUKALDEKO ALTZARIAK**
San Pedro plaza z/g.
Tf. eta faxa: 943 76 34 00

**TB, BIDEOA, HI-FI SOINUA**
Barrenkalea 6.
Tf. eta faxa: 943 76 25 96

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.
**Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

FAGOR
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.